

Euskeraren xarma Irulegiko eskua



SHDHPLE - P
S O T I O O H U - H
OMECREZODOE
M N K E E M F O M F (H)
HTPOXPIESEDAOT
O T I F T E M B E S E A M F I
EODTXPI
O F O H O N T E

Euskeraren Jatorria

**Gidaliburu hau Barrika eta gero
etorri diren zenbait ekarpenekin osatu da**

Irulegiko Eskua 2. bertsioa 2022.12.31

0. Aurkibidea

1. Sarrera	3
2. Euskeraren Jatorria, Iruña-Veleia Martxan eta Historiazaleak elkarteen adierazpena ..	4
3. Irulegiko Eskuaren proposamenak banan-banan	5
3.1. Juan Inazio Hartsuaga	7
3.2. Paulo Arrieta	17
3.3. Josu Naberan.....	44
3.4. Bienvenido Mascaray	47
3.5. Luis Azkona.....	54
3.6. Bizkaiko hizkuntzalariak	59
3.7. Fernando Azedo	72
3.8. Iñigo Larragoiti	74
3.9. Ibon Telleria	76
3.10. Antoni Jaquemot.....	77
3.11. Miguel Thomson	78
3.12. Guillermo Gonzalez (desde el cestiberismo)	85
3.13. Iñaki Aldekoa Larrañaga	86
4. Irulegiko lehenengo idazkunaren proposamenak (1993n topatutakoa)	87
4.2. Informazioa. Hesperia	87
4.2. Paulo Arrieta Azpuru	89
4.3. Juan Inazio Hartsuaga Uranga.....	90
5. Andiongo mosaikoaren proposamenak (Andelos-Mendigoria-Nabarra)	91
5.1. Bienvenido Mascaray	91
5.2. Josu Naberan Naberan.....	94
5.3. Antonio Arnaiz.....	96
6. Iberiera Iruña-Veleian	99
7. Jon Nikolas: Euskaragandik Eskuaragana. Contextualización de Irulegi.....	100
8. Iberiera lantzeko tresnak	120

1. Sarrera

Orain dela 25 urte Mendiagorriako Andion herrian (Andelos) topatuko esaldi iberiarrak, edo, iberiera euskeraren bidez lantzen ari diren ikerleek, orain arte ez dute piztu iberiar grafiarerekiko zaletasuna, Irulegik egin duen moduan. Orain, ordea, euskaldunek iberiera dezifratzeko dugun erantzukizuna mahai gainean jarri da.

Irulegiko eskuaren testua interpretatzeko “ikerle ofizialek” zazpi hilabetetan ez dira ezer adosteko gai izan. Baina ez gara harritu, 25 urtetan Andiongo esaldiari buruz ere ez digute ezer proposatu.

Beraz, Andionen bezala, oraingoan ere herriari dagokio proposamenak egin eta lantzea, eztabaida sustatzea eta, denon ekarpenen arteko kontrastearekin, bidea egitea, egunen batean zerbait adosten dugun arte.

Dena dela testua argitzeaz bezain garrantzitsua da jakitea zergatik oraingoan zabaldu duten Irulegiko Eskuaren informazioa hain modu zabalean. Izan ere, azken hamarkadetan erabat kontrako jarrera izan dute (euskalduntze berantiarra, Iruña-Veleia, zenbaki iberiarrak...). Oraingoan zergatik erakutsi eta zabaldu dute. Zergatik?

Lehenago edo geroago jakingo dugu. Bitartean Marik ekarritako opari honetaz gozatu eta ikertu dezagun, gure arbasoen idazkietan herri jakintzaren bidez sakonduta.

Euskeraren Jatorria



2. Irulegiko eskua ikusita, Euskeraren Jatorria, Historiazaleok eta Iruña-Veleia Martxan elkarteok ETBri euskalduntze berantiarraren dokumentala betiko kentzeko eskatzen diogu

Irulegiko idazkunari buruz, hiru elkarte hauek adierazpen hauek egin nahi ditugu:

Irulegiko idazkunak ETBk eta Alberto Santanak bultzatutako Euskalduntze Berantiarraren dokumentala gezur hutsa dela berriz ere baieztatu digu. Hori aspaldi bagenekien, dokumentala bultzatu zuten Maite Iturberi eta Alberto Santanari zuzenean esan genien bezala: euskal toponimia eta hidronimia, euskal izenak Soria, Burgos, Araba, Nafarroa, Errioxako hilarriak, Iruña-Veleiako idazkunak, arrazoi politikoak erromatarren zapalketarik... Horrez gain, gainerako “Baskoniako beste historia bat” atal batzuk zalantzan jarri behar direla uste dugu, erabilitako metodologia oso zientifikoa ez dela izan baieztatuta geratu delako.

Arantzadiri egindako lana eskertzen diogu eta beste testua ekartzeko eskaera. Baina beste talde arkeologiko batek Irulegin topatu zuen beste testu bat Zaragozako Beltran irakaslearen esku bahituta dagoela ere salatu nahi dugu eta horregatik berau Nafarroako Gobernuari beste idazkun hori ekartzea eta ikertzeko publikoki uztea eskatzen diogu.

Seguraski ez da euskal testurik zaharrena, bai ordea osatuenetako bat. Albisteetan aipatu dena pixka bat zalantza jarri behar dela uste dugu, eta lehen idazkuna dela arinegi jarri dela uste dugu. Euskal Herrian baditugu K.a. I eta II. mendeko txanponak euskal testuekin (Barskunes...), baditugu testu batzuk: Mendigorriako Andelosekoa, Bianako txerriaren testua eta besteren bat. Luis Azkona nafarraren lan honetan (<http://euskerarenjatorria.eus/wp-content/uploads/2020/05/ESCRITURAS-DE-LOS-BARSKUNES.pdf>) Euskal Herrian topatutako iberiar grafiazko baina euskeratik interpretatu daitezkeen testu zahar batzuk ikusi daitezke.

Itzelezko garrantzia. Testua, denek esan duten bezala, izugarrizko garrantzia dauka arrazoi askorengatik: testu luzeena da, esaldi nagusiak bereizita daude, testuingurua badugu (etxe baten atean), lehenengo hitzak ez du zalantzarako zirrikiturik uzten eta gure betiko euskera dela ikusten dugu, nahiz eta Gorrochateguik “lengua vasconica” deitu.

Manuel Larramendik bota zuen teoria berriz ere baieztatu dela esan behar dugu, alegia euskera aspalditik hizkuntza idatzia ere izan zela.

Iruña-Veleiakoko grafitoen aldeko aurkikuntza da Ikusten delako herritarrek idazten eta irakurtzen jakitea ez zela salbuespen bat izan.

Iberiera eta bere grafia ikasteko beharra. Nahiz eta unibertsitateetatik eta euskal establishmentetik iberiera gauza arrotzat hartu eta bazterrean utzi, ez dugu ahaztu behar Italiatik Kanariak uharteetaraino erabili zela idazkera hori eta Euskal Herria eremu zabal horren erdian dagoela eta beraz, euskaldunok badugula berori ikertzeko beharra. Euskeraren Jatorriak iberista askorekin batera Lengua Iberica abian jarri genuen orain 7 urte hain zuzen ere bide horri ekiteko.

Eskerrik asko. Azkenik, larunbat honetan Iruña-Veleiaren aurkako eraso hasi zenetik 14 urte betetzen direnean eta Euskeraren Jatorriak bere 16. Biltzarra egingo duenean opari hau izatea, besteak beste hango grafitoei beste bultzada txiki bat emateko, bihotzez eskertzen diogu Anbotoko Mariri.

Euskeraren Jatorria, Historiazaleok eta Iruña-Veleia Martxan elkarteak

2022.11.14

3. Irulegiko Eskuaren proposamenak banan banak

Egileak	Irakurketak Zorhioneku dene kebe. Ekirateren otsirtan ez eakari, eraugon
1. Juan Inazio Hartsuaga	OROTARIKOAN AGERI DIREN HITZEZ Zorhi oneko dene keben. Ekirateren orritsetan ez akartu, eragon. ERDIALDEKO EUSKARA ESTANDARREAN Ongi heldua dena ere hemen. Ekirateren adiskidetasun banketeetan, ez haserretu, ondo pasa
2. Josu Naberan	Leku zorionez betea / beha ezazu zein atergune bikaina / etsegune bikain bezain eroso / egonleku ezin egokiagoa
3. Paulo Arrieta	Zorioneko zu / Denek bere argia aterpe honetan / Etxe izan dezagun
4. Bienvenido Mascaray	Egun on! Egun hau egia lortzeko aukera bat izan dadila. Inguruko gaiztakeriak baretu daitezela. Har dezala gari lohia. Ohe ona jartzea Dia de Buena suerte / Que sea este día oportunidad hacia la verdad / Que se aplaque la ira del entorno / Que se coja el trigo lozano / Disposición de buena cama
5. Luis Azkona	Sorioneku : tenekerekirateren : otirtazeseakari : eraukon Zorioneko teink egirateren otintak esankari eraukin Dichoso será, que él va a detener los odios, el que dice, en rendición "Dichoso será el que afirma que va a detener los odios, en rendición
6. Bizkaiko hizkuntzalariak	Zorion ekun (ukan) / Denak hemen haiekin dira aterpe (n) / Hots irri eta ma ez ahakarri / Edrauk on. Zorioneko. Denek hemen gira aterean...tan: Etxea garbi ukan
7. Fernando Azedo	Zorioneko / heda han(di) ez hemen egin aurre aterrian / ohe eder dan etxera ekarri erraguk on Afortunado / gran desplazado aquí no hagas adelante<>avance / que a cubierto es hermoso el yacer / dínos (bien <> lo bueno) que traes a casa.
8. Iñigo Larragoiti	"Espiritu de la felicidad del yo interior / sacado en la puerta el bronce hace el ciclo central de la fuente / haciendo que el dicho se repita en el hechizo magico / a bien repetidamente dentro sea mostrado"
9. Ibon Telleria	Zorioneko / denek epe egin ater-lekuan (atarian) / otoi irten bat e(t)seak / arre-erra eduki dezan
10. Antoni Jaquemot	Permiso de uno que la reunión se realice fuera con agrado entrañas visibles siendo tu mismo
11. Miguel Thomson	Feliz (solsticio de) invierno a todos. Cuando el sol está bajo, cuando afuera hace frío, ahora, a casa trae un cerdito." "Feliz año nuevo (o solsticio de invierno) a todos. Ahora que el sol está bajo y hace frío afuera, trae buena suerte a casa."
12. Guillermo Gomez	Nosotros los berones representados por nuestro jefe Tenekerekirateres hacemos amistad con la ciudad de Onirta Sekiea y lo promulgamos

13. Iñaki Aldekoa Larrañaga	Sorion egun(a) / teneke be(go?) ekirateren / oñirtan eseakari / eraukon Zorion eguna / eukola(/izan dezan) eki atearen / oinetan eskigailu (hau) / daukonak
Josu Lavin	Zorioneko denek hemen giraten onetan etsea ekarri eraukon Zorionekoak etxe honetara ekarriak izan garen denok.
Raul B	Zorionekoak etxean zintzilikarioari otzan begiratzen dioten guztiak.
Igor Leibar	Zorionak / Denak pasatzen dira ate azpitik/Zutik pausaleku/Eder erretiroa
Lander Ibarguren	Zorionekoak eta ni hemen, eguzkia atearen aurrean, ez ekarri gaitzik.

3.1. Juan Inazio Hartsuaga Uranga

Irulegiko zorioneko testua aztertzeko saio honek fonetika diakronikoa du oinarri eta muga, baina ez ordea hesi. Ohiko testu laburregiak ez bezala, Irulegiko honek bestelako hurbilbideak onartzen dituelako, semantikari ohikoa ez duen protagonismoaz jabetzeko aukera luzatzen dion aldetik batik bat.

Bertan garatu behar dugun saioak, Leonardo de Vinciren zubi eratxekiaren antza du nolabait. Hagak eta zehar-hagak elkarri lotuz eraikitzen da, inolako iltze, ziri edo kabilarik erabili gabe, zurezko irazki eta bilbeak bailiran. Zubiak tankera eskasa du txit hasieran, baina aurrera egin hala, gero eta sendoagotu egiten da, azkenean taxuzko eraikin zurruna bilakatu arte.

Saio honetan ere, ikerbidean aurrera egiteko iradokiko ditugun proposamenei eskas iritzi ahal izango zaie agian, banan-banan begiratuta, Leonardoren zubia osatzen duten hagei eta bilbeari bezala. Ez da gure asmoa eztabaida horretan sartzea, besteak beste iritzi ezkor horien atzean, zalantzarik gabe dakigunaz haragoko hainbat aurre-iritzi egon daitezkeelako, zinez ez dagokien axioma soinekoz jantzita. Hemen darabilgun teoria sinplea da: hagak eskasak direnentz ez eta bai kalaka antzuan ibili beharrean, zubiak izango du azken hitza. Zubiak eusten badio, orduan hagak eta bilbea baleko zirela ezpairik gabe esan ahal izango dugu.

Metafora apur bat zehaztuz, inori ilunegi gerta ez dakion, Orotariko Euskal Hiztegia izango dugu etengabeko erreferentzia eta Mitxelenaren FHV ezin besteko gida, baina airean egindako berreraikipenek eta horietatik datozkeen hainbat “ezinezkotasun” arinegik ez ditugu aintzat hartuko proposamenak egiteko garaian. Azken emaitza izango dugu, zubiaren antzo, epaile bakarra. Proposamenok Interpretazio esanahitsu borobil batera eramaten bagaituzte, onetsi egin beharko dira, metodoarekin batera, berriketak gorabehera. Besteak beste okerreko proposamenetik abiatuta interpretazio borobil batera iristeko aukerak estatistikoki hutsaren hurrena direlako.

Beraz, Orotarikoaren erreferentziaz eta FHVren baitako bilakaera proposamenetara mugatuz, arlo semantikoari emango diogu lehentasuna, testuaren luzeak eta testuinguruaren argibide sorta narroak eskaintzen diguten ez ohiko aukera baliatuz. Interpretazio ahalik eta ulergarrien eta esanahitsuena erdiestea izango da lan-ardatza, aipatu mugen baitakoa dela egiaztatuz noski gero.

Edozein testuan egin beharreko lehen urratsa, testu hori behar bezala zatitzea da, gaizki zatituz gero, inoiz izan ez diren hitzen bila jardungo dugulako gero, eta bistan da, ez dugula ezer edirengo ikerbide horretan. Irulegiko eskuak, jendaurreko aurkezpenean nabarmendu zen sorioneku hitzaren ondoren, honako testua du.



Euskaraz ez da, nik dakidala, bi e jarraian dituen hitzik, eta beraz, testuko bi horien artean ebakitzea


irizten diogu egokien. Ezkerretan *tenekebe* geratzen zaigu eta eskuinetan berriz *ekirateren*. Hurrena, ezkerrekoari begira, *kebe* da, *tenekebe* horren barruan ulertzeko moduko zerbaiten tankera duena. Izan ere, zubererazko *heben* erakusleak (*hemen*) badu *hebe* aldaera, Orotarikoak jasotzen duena. Beraz pentsa liteke erronkarierazko *keben* aldaerak ere, izan zezakeela bere *kebe*. Orotarikoan badator *keben*, ez ordea *kebe*. Halere, huts hori Orotarikoarena da, *kebe* aldaera ageri baita Mendigatxa bidankoztarraren idatzietan (*Badago kebe Otsagiko animarik?*)



Esanahiaren aldetik, bistan da aurreko *zorioneku* hitzarekin bikote txit egokia osatzen duela *kebe* (*hemen*) erakusleak. Eta bien artean harrapatuta geratzen den *tene*, iberiar idazkeraren arabera, *tene* nahiz *dene* izan daitekeela jakinik, azkenaren aldeko aukerak ez du zalantzarako zirrikitu handirik uzten. *Zorioneku dene kebe*. Zaila da bertan ez ulertzea *Zorioneko dena hemen*, zaila den arren ere, *dene* hori zer den zehatz mehatz garbi ikustea: *dena? Den(a) ere?* Zernahi dela eta, Leonardoren zubigintzan gabiltzanez, zilegi bekigu aurrera egitea, egokitasun semantikoa baliatuta eta bestelako zalantzak argitu gabe utzita.

Azkenik honi dagokionez, *kebe* aldaerak Bidankotzeraino eramaten gaitu, Zaraitzuko mugako Erronkariko ibarrera, Irulegitik urruntxo. Oraingoz aipamena egin uzten dugu, iruzkin baratxeagoa egingo diogu gero.

Marratik eskuin aldekoari ekitera igarotzerakoan berriz, topo egiten dugu erabaki beharreko lehen auzi serioarekin: *r*-en auziaerkin, alegia. Izan ere, bi *r* mota ageri zaigu testuan, alde batetik *Sorioneku* hitzean dagoena, testua aurkeztu dutenek *r* emetzat aurkeztu dutena (*gara* diogunean bezala), eta bestea berriz gainerako kasu guzietan ageri dena, aurkezleek *rr* dardarkari ozentzat jo dutena (*arrautza* esaten dugunean bezala). Aurkezleek azpimarratu dute egindako aukera horiek ez direla nahitaezkoak eta badirudi horrela egin dutela zorioneko *zorioneku* hori elki zedin. Halere, hitz fetitxea erdietsi izanaren ordainetan prezio garestia ordaindu beharrean geratzen gara, gainerako *r* guztiak *rr* gisan irakurri behar izanez gero zeharo murrizten baitzaizkigu testua interpretatzeko aukerak.



Gero ikusiko dugunez, interpretazio aukera hobeak sortuko lirateke testuko r ugariago horiek gara bezala irakurtzerik bagenu. Posible al da?

Euskal Filologoen artean bada nahiko adostasunik esaterakoan gaur egungo *r* eta *rr* fonemen arteko ahoskeran dagoen aldea ez bide dela beti horrelakoa izan euskaraz, eta oso litekeena dela garai batean *r* bakarra izatea, aipatu bien erdi bidekoa, edo *r* ahoskera emearen hurbilagokoa. Horren adibide ditugu bikoiztutako *arotza* eta *arrotza* edota gaur egungo euskalkien arteko hainbat ahoskera ezberdintasun (*ezarri v. ezari*).


Baina, adostasun orokorraren baitan kokatzen gaituen uste horri atxikitzen bagatzaizkio, nola ahoskatu behar dugu hasierako beste *r*-a, *Sorioneku* hitzan ageri zaiguna? Bistan da besteak ez bezalako ahoskera izan behar zuela, bestelako letraz idatzi zutenez gero. Gure gaurko *r*-a eta *rr*-a bat bera baziren edo oso ahoskera hurbilekoak, zer ote zen beste *r* diferente hori?

Euskararen eta iberieraren ezaugarri fonetikoei erreparatuta, lehenik eta behin otutzen den aukera, *rh*-a da, *erho* edo *erhi* bezalako hitzetan ageri zaigun *r* hasperenduna. Hautu hau, beste edozein bezain zilegi da eta semantika mailan hobaririk ematen digun heinean lehenetsiko dugu, ez beste ezerengatik. Honen arabera, honela irakurri beharko genuke testua

ZORHI ONEKU DENE KEBE. EKIRATEREN OTIRTAN ESEAKARI ERAUKON.

Zorioneko *zori* galdu ondoren ez gara halere umezurtz geratuko, Orotarikoak dioskunez *zorhi* ere badelako zerbait: *Heldua* edo *sasoikoa* esan nahi du, eta lurraren fruituez esan ohi da, non eta ... Erronkarin eta Zaraitzun besteak beste. Izan ere, eguneroko bizitzan erabilpen sarriko izango zen noski, Zangotzako gaztelanian ere gorde baita *sorico* hitza, fruitu umoari esateko. Esanahiaren aldetik, *zorte oneko* ordeztu *saso oneko* jartzeak ez du ematen aldaketa handia dakarkionik, ongi etorriko izan daitekeen mezu abegikor horri.

Mezuaren gainerako *r*-tan berriz, interpretazio bidea leunago geratzen da *ekirateren* eta *eraugon* irakurri badezakegu. Lehen kasuan genitibo posesibo itxura geratzen delako eta bigarreanean berriz aditz faktitibo batena.



Une honetan, gaurkoa bezalako euskal esaldi baten pareko zerbait ageri ote den ematen du, ulergarri ez den arren....rentan,kari(aditza).

Hasieratik hasita, *ekirateren* horrek, bere genitibo posesiboarekin, *Ekirate* izeneko balizko pertsonaia baten aurrean kokatzen gaitu, eskua zintzilik zegoen etxeko jabea bide zena. *Ekirate*, ezagutzen ez dugun garai hartako izen pertsonala izan liteke edota *Ariztimuño* bezalako toponimiatik hartutako antroponimoa. Nafarroako Toponimia Datu Basera jota, erro bereko *Ekiraso* toponimoa topatu dugu, Aezkoako Hiriberrin, Zaraitzuko mugan, balizko *Ekirate* bat zuritzeko nahikoa gure ustez. *Ekira* erroko beste toponimorik ez dugu aurkitu Euskal Herri osoan.

Honainoko hitz eta izen guztiak, *kebe*, *zorhi*, *Ekirate*, Aragon ibaiaren arroan kokatzen gaituzte. Irulegiko gaztelua, Arga eta Aragon ibaien arteko ur banatzailean dago *Ekirate* idoro ondoren, bere etxean zer gertatzen den asmatzea dagokigu hurren. Eta horretarako, hautu batzuk lehenetsi eta beste batzuk baztertzen hasi behar gara, esaldiaren esanahian hautu horien ondorioak zein diren behatu eta ebaluatzeko.



Lehenik eta behin azken hitzari helduko diogu, goiko matrizean ikusten den moduan aukera kopuru murriztena duena baita. *Eraugon* ez dugu Orotarikoa, ez eta *eraukon* ere. Beren hurbilekoenak, *eugon* eta *eragon* aditzak dira. *Eugon* aditzaren faktitibotzat hartuko bagenu, *iragan*, *igaro* esanahia leukake, *eugon* zera baita, *igan* edo *igo* aditzaren aldaeretako bat. Aukera egokia esanahiaren aldetik, baina *eugon* aldaera Bizkaiko Arratian jasoa da eta beraz orain arteko

euskalki-koherentziatik aldenduko gintuzke.



Bigarren aukera, *eragon* aditza da. *Eraugon*-en esanahi bereko aldaera izan liteke, *jantzi* eta *jauntzi* edota *arkitu* eta *aurkitu* esanahi bereko aldaerak diren hein berean.

Kokapen aldetik, Bizkaian ere ageri da, baina ez Bizkaian bakarrik aurrekoa bezala, Euskal Herri osoan baizik, Ekialdea barne. Eta esanahi aldetik aurrekoa bezain egokia edo are amiñi bat egokiagoa dugu, *entretenu* edo *distraitu* esan nahi baitu, hots, zeozer egiten denbora pasa, batzuetan lanean, baina gehienetan aisialdiarekin lotuta. Hau guztiagatik, *eragon* aditza hobetsiko dugu inskripzioko *eraukon* argitzeko. Gogora arazi dezagun bide batez, iberieran letra bakarria dagoela *b* eta *p* adierazteko, letra bakarria *d* eta *t* adierazteko eta letra bakarria *g* eta *k* adierazteko, eta beraz bikote bakoitzaren barnean interpretaziorako lagungarrien gertatzen dena hautatzea zilegi zaigula.

Hurrena *eseakarri* hitz edo multzoarentzat proposatu behar dugu interpretazioa. *Sorioneku*-ko *s-a*, *z* bailitzan irakurri dugunez, hemen ere beste hainbeste egitea izango da zintzoena, eta beraz *ezeakar(r)i* geratuko litzaiguke. Honek ezezko baten presentzia iradokitzen du berehala: *ez *eaka(r)ri* edota **eze *akar(r)i*. Ez bata ez bestea ez dira Orotarikoan ageri, baina litekeena da *akartu* aditzaren aldaera izatea. *-tu* latinari hartutakoa dugunez, gero *akartu* izango zena aurrez *akar(r)i* izan bide zela iradokitzeak ez du ematen neurri gabeko ausarkeria.

**eze akar(r)i* forman, balizko ezezko arkaikoa izango genuke

ez eakar(r)i* forman, balizko **jakar(r)i* (xakar(r)i* zaraitzueraz) baten sorburua legoke. Guztiak,- inoiz izan baziren-, *akartu* aldaera nagusitzerakoan galdutakoak.

Akartu hitza tartean sartzea ia nahitaezkoa gertatzen da semantikaren aldetik, esaldiak *eraugon* aditzaren antonimo bat eskatzen duelako, ezezkoak hartaratuta: *Ez eakar(r)i. Eraugon. Alegia, ez akartu, ez haserretu, entretenu, ondo pasa.*

Beraz, errazenetik zailenerantz darabilgun bide honetan, lehenik *eragotetik akartzera* igaro gara, ezezkoak bidea argituta, eta horrenbestez iritsi gara ments dugun azken erronkara, erronkarik zailenera, *OTIRTAN* ilunera. Denetan zailena, bertan dugun *T* hori ez delako iberiar alfabetokoa, euskararen fonetikaren beharrak asetzeko sortutakoa baizik, eta ez dakigulako beraz nola ahoskatu behar dugun ere. Goiko taulan zerrendatu dugu gogoetagai ibilitako aukera mordoa. Hasierako *Ot*-ek eta testuinguruak iradokita, nolabaiteko otordua dela ematen du, baina ezin %100 seguru esan eta izatekotan ere ezin ezer jakin balizko otorduaren zer-nolakoaz.

Korapiloa Mendigatxak askatuko digu beste behin, hark erakutsitakotik iritsi baikara oraingo proposamena egitera. *Otsirtan* irakurtzea proposatuko dugu eta berehala argituko dugu zergatik.

Otsir ez da ageri Orotarikoan. Bai ordea metatesi bat bitarteko bere oinordeko bide dugun *orrits*.

Berdin-berdina izan gabe, *lexar* eta *errexala*-rena bide dugu aipatu metatesiaren zurigarri egokia (mila esker Ander Ros adiskideari). *Orritsa* banketea da, Oihenartek argitzen digunez hitzaren agerpen jator bakarrean (*Orritsetan du erhoak ona gastatzen, eta zuhurak berea goitiatzen*), gainerakoak Oihenart beraren sorburu horretatik hartutakoak baitira. Baina Mendigatxak jakin arazten digu Oihenarten Zuberoako *orritsa*, *urritsa* bilakatu dela Erronkari eta Zaraitzun, *urriskide* baitira bertan parte hartzen dutenak. Eta zer da ba *urrits* hori? Bada, haserre dauden auzokideak adiskidera daitezen urtean behin antolatzen den bankete errituala, Erronkari eta Zaraitzuko usadio zaharren arabera. Bertan parte hartzen duten auzokide etsaituak *urriskide* bihurtuta elkitzen dira otordu horretatik, adiskidetuta, pakeak eginda. Honatx Leonardoren zubia guztiz osatuta.

Otsir/Orrits/Urrits batera, bere etxera datozen auzokide etsaituei, *Ekirate*-k gogora arazten die ate gaineko eskuaren bidez pakeak egitera etorri direla eta eskatzen die ez daitezela haserretu eta egon daitezela giro onean. Honen argitan, testuaren lehen esaldian suma dezakegu orain, bertso zaharretako metafora-bide ezaguna: naturaren ezaugarrietan erreferentziak bilatzea (*altzak ez du bihotzik, ez gaztanberak hezurrik*) gizakien jokabideen inguruan mintzatzeko (*enian uste erraiten ziela aitunen semek gezurrik*). Hein berean *Ekiratek* ongi etorria ematen die bere etxera datozen auzokide etsaituei, bere etxean dauden fruituen heldutasuna gorai patuz, bertan dauden guztiak ere heldutasunez jokatu behar dutela gogora arazteko: *Zorhi oneku dene kebe*.

Bakegile eta bitartekari dihardu beraz *Ekirate* eta beraz, Irulegiko hirian ez zen edonor izango, nolabaiteko bake-epaile edo buruzagia baizik. Bidebatez, izen toponimikoetan gertatu ohi den legez, ez du genero markarik eta etxeko jauna ala etxeko andrea ote zen jakin gabe geratu beharko gara *urriskideen* ohituraren inguruko argibide osagarriak non edo han noizbait erdietsi ezean.



EUSKALKIAZ HITZ PAREA

Irulegiko Gazteluko inguruan, Hegoaldeko Goi Nafarrera hitz egiten zen duela bi mende. Eskuaren testuak berriz, Zaraitzu eta Erronkarira garamatza argi eta garbi. Ez dut uste honek, interpretazioa zalantzan jarri beharko lukeenik. Azken bi mila urteetan Iruñea eta Gasteiz izan dira eragin iturri eta ez da zaila irudikatzea, lehenago Aragon ibaiaren arro osoa bete bide zuten Ekialdeko euskalkiak epe luze horretan apurkaberaren eragin-esparrua galtzen eta murrizten, iparrerantz eta ekialderantz

atzera eginez. Gainera epe berorretan Gaztela izan den bezala Mendebaldean kokaturik bere boterearen eragina ekialderantz senti arazi duena, Irulegin jendea bizi zen garaian, Ekialdean bizi ziren iberiarrak bide ziren eragin sorburu, haien alfabetoaren erabilpenak erakusten duenez, eta irudikagarria da horren itzalpean ekialdeko euskalkiak apur bat mendebalderantz zabaldua. Ez dakit horrela gertatu ote zen, ez baitago horren inguruko albisterik (berau litzateke lehena), baina ehiki irudika daitezke horrelako mugimenduak.

BASKO-IBERISMOA

Nire ustez Irulegiko testuak ez dio basko-iberismoari inolako mesederik egiten eta bai ordea alderantziz.

- a. Bai noski iberiarrek euskaldunengan izan zuten eraginaren norainokoari dagokionez: euskara iberiar alfabetoaz idatzi zen eta alde horretatik, iberiar idazkeraren gaia gure filologian sartu beharko litzateke aurrerantzean.
- b. Iberiera euskaratik interpretatzeko ahaleginari dagokionez ordea, uste dut Irulegikoak azken bultzadatxoa ematen diola amildegian behera bidaltzeko. Izan ere, iberiar testuak euskaratik ulertzeko ehun urte pasako ibilbide neketsua egin ondoren, iberiar idazkeraz idatzitako euskara aitaren batean ulertzeko gauza bagara, kontraste hain bortitz horrek erakusten duena da, aurreko testu horiek denak ezin direla euskaratik ulertu. Kapaz bagara Irulegikoa euskara dela lipar batean ohartzeko, are gehiago, zaraitzua/erronkaria usaineko euskara dela zehazteko, eta bitartean Andeloskoarekin urteak badaramatzagu korapilatuta, bi ulerpide baino ez daude: Bata da pentsatzea Irulegitik Andelosea euskara izugarri aldatzen zela eta bestea berriz, Andeloskoa euskara ez dela. Argi eta garbi azken honen aldekoa nauzue, bestea sinesgaitz egiten zaidalako zeharo.

NOIZKOAK DIRA EUSKALKIAK?

Ez naiz ni nor galdera honi erantzuteko, eta ez dut inondik inora gutxietsiko VI mende inguruko batuaz mintzo zaizkigun adituen lana, ongi oinarriturikoa dela uste dudalako. Baina agian geruzak bereizten hasi beharko gara hizkuntzaren barruan, zeren Irulegiko testu honek begi- bistako jarraikortasuna erakusten baitu Zaraitzu eta Erronkariko euskararekin. Testuaren hiru bertsio paratu ditut horren erakusgarri:

IRULEGIKO ESKUAN

Zorhioneku dene kebe. Ekirateren otsirtan ez eakari, eraugon.

OROTARIKOAN AGERI DIREN HITZEZ

Zorhi oneko dene keben. Ekirateren orritsetan ez akartu, eragon.

ERDIALDEKO EUSKARA ESTANDARREAN

Ongi heldua dena ere hemen. Ekirateren adiskidetasun banketeetan, ez haserretu, ondo pasa.

Lehenetik bigarrenera ikusten da euskara zenbat aldatu den bi mila urteetan. Eta bigarrenetik hirugarrenera, zenbat aldatzen den Ekialdetik gaurko euskara estandarrean. Bistan da non dagoen saltorik handiena. Testua ulergaitza zaigu batez ere erronkaria eta zaraitzua ulergaitz zaizkigun hein berean. Ez du ematen duela 150 urteko Bidankotzeko hiztun jatorrek Irulegikoa ulertzeko hartarainoko zailtasunak izango lituzkeenik.

3.2. Josu Naberan Naberan

-SORIONEKU

-N. T. N.-E. / KE-BE.-E. KIR. A. T. E. R. EN
*tan-eiñ-en, ekuzu, ke be ekir ater en une
(BEHA EZAZU ZEIN ATERGUNE BIKAINA!)

- O TIR . TA. N. E S E. KA
*ZEIN LEKUNU-ETSE EDERRA, EROSO ETA JASOA, BIKAINA EGITAN!

- ER-A. U. KO. ON
*ER-ARA-UKU.

ON
"leku ezin egokiagoa!"

SORIONEKU(N)
*ZORO-EIÑ-EN-UKU-ON
"LEKU ZORIONEKOA".....LUGAR DEL TODO APROPIADO

T. N. E. KE.
*IKUS EZAZU GUNE KALITATEZKOA.....MIRA ESTE LUGAR DE CALIDAD ESPECIAL,

BE. E. KIR. A. TER. E(N)
*BEDI ALDIRI BIKAINA.....SEA UN ESPACIO ESPECIAL,

O. T. I. R. TA. N. E. S. E. KA. R
*IKUS ETSE ATER-GUNE ATSEDENGARRIA...VÉ ESTA CASA, CUÁL ACOGEDORA

E. R. A. U. K. N
*LEKU BIKAIN BIKAINA EGOTEKO.....SITIO ESPECIALMENTE APROPIADO PARA
ESTAR

Irulegiko Eskuari buruzko ñabardurak

Iberiera (eta euskera) jakin gabe ezin da dezifratu testu hau. Ba al dakite iberiera hemengo hizkuntzalariek? Bada, ez dute erakusten iberiera jakin nahi dutenik ere. Ba al dakite euskera aski hemendik kanpoko hizkuntzalariek?

Ofizioko hizkuntzalariei aditu ondoren (Javier Velaza, latinean eta J. Gorrochategi hizkuntza indoeuroparrean adituak), neure iritzia ere agertzera ausartzera noa, hizkuntzazale gisara. Izan ere, aurkikuntza hau oso berezia eta garrantzitsua baita, euskaldun guztion zorionerako. Eta zeresan handia ekarriko duena, goian aipatu hizkuntzalarien ustez.

Zeren batetik, «Vasconización tardía»-ren gezurra agerian uzten baitu, eta “Una historia de Vasconia” lotsa gorrian utzi lotsagarri. Are, nahiko motibo emoten dau Iruña-Veleiako afera beirplanteatzeko seriozki.

Hizkuntzalari guztiok diotenez, testu horretako lehen hitza, «sorioneku» euskal kutsukotzat jotzen

dute («vascónico» deritzote gehienek, edo bascón, ezen ez celta edo celtibérico. Laster saiatuko naiz hizkuntzalariok erderaz dioten terminologia euskerara itzultzen eta, ene aldetik ahalez, argitasunaren ekarpen bat egiten.

Beste kontu bat da testu horren interpretazioa. Eta hüntaz ere nire ekarpena egiten saiatuko naiz. Hortixe hasiko naiz, hain zuzen, nire interpretaziotik:

SORIONEKU (N)

*ZORIONE-EIÑ-EN-UKU

«leku zorionekoa»

Cf. Lehenik argitu beharra dago zergatik bihurtzen dan jatorrizko Z hori, S.

Hizkuntza gertaera horri «irregulartasuna» deritzote hizkuntzalariek. Nire ustez argi dago «irregularitate horren zegatia: «irregulariteak» beti-beti gertatzen dira bi bokal elkartzen direnean, kasu honetan i-o bokalak.

Hurrengo lerroetan oso zail gertatzen da testuaren interpretazioa egitea. Hizkuntzalari gehienek (guztiak ez esatearren) interpreta-ezina dela diote. Hori bai, hitz iberikoak direla tartean.

Neu ez nator bat interpreta ezina delakoaz. Hona hemen, segidan, ene interpretazioa:

N T N E KE BE E KI R A T E R EN

*TAN-EIÑ-EN-E-KE BE-E-KIR-ATER-EN-UNE

«ikus egizu eraikuntza hau, izan bedi atergune bikain-bikaina»

Cf. 1: lehen galdera da ea zelan ateratzen dudan hori guztia, sonbrairutik erbia bailitzan. Kontua da bokal eta kontsonante solte horiek «kodeak» direla; hau da, testu hori idatzi zuenak eta irakurtzen zutenek bazekitela bokal eta kontsonante solte horien azpian hitzak zeudela, eta zeitzuk ziren zehazki azpiko berba horiek. Adibidez, «e» bokalaren azpian «ekuzu» iberiera datza (euskeraz «ikus ezazu»); Hortaz, iberiera hizkuntza dago azpian.

Halaber, N T N unitatean euskal aditza datza: TA-AN-EIÑ-EN; (EGIN aditz nagusiaren aurrekaria)

Beraz, tartean euskera eta iberiera hizkuntzak dagoz, ze jende hura elebiduna baitzen (edo poliglota). Hortaz, iberiera (eta euskera) jakin gabe ezin da dezifratu testu hau. Ba al dakite iberiera hemengo hizkuntzalariek? Bada, ez dute erakusten iberiera jakin nahi dutenik ere. Ba al dakite euskera aski hemendik kanpoko hizkuntzalariek? Horiek behintzat ahalegina egiten dute, batik bat R.M. Azkueren hiztegia arakatuz.

Jarrai dezagun:

O T I R T A N E S E K A R I

*ON-TIR-TA-UNE-ES-SE-ARA-GARRI-EN

«gune bikain-bikaineko etse lekua, atergune atsedengarria»

E R A U K O N

*ER-ARA-UKU-ON

«leku-gune egoki-egokia egonean egoteko»

Testu honetan, argi eta garbi dakutsagu hurrengo gauza hauek:

1. Lehenik, brontzeko esku horren zentzua: etxea erakustea kanpotik datorrenari, hots abegi egitea eta etxera gonbidatzea.
2. Beharbada, bide batez, zeinu eta jarrera abegitsu horrekin etxea babestea, balizko etsaiak uxatuz, bakezko jarreraz.

3. Zertarako jartzen dugu, oraindik gaur egun, ekilorea edo beste landararen bat atean? Egizue eskolaz kanpoko jarduera hau, eta galde ohitura horren zergatia etxe bakoitzeko zaharrei.

4. Har kontutan hizkuntza iberiarra Akitanian bertan sortu zela duela 18.000 urte: solutre aldian gure amamek bisilabazko hizkera eraiki zutenean.

Izan ere, hizkuntzalariek «aitzineuskera» deritzoten lehen euskera milenarioak -150.000 urte dauka, edo gutxienez 120.000 urte. Orduantxe sortu ziren zeozelan berba egiteko kapaz ziren gizakiak (Neandertal gizakia edo horren arbaso Heidelberg gizakia, lehenbizi sua kontrolatu ahal izan zuela).

Gizaki hoiek izan ziren berba egin ahal izateko gaitasuna izan zuten lehenak. Horiek hitz-hots silaba-bakarrak erabiltzen zituzten, hainbat zeinuz, keinuz, intonazio-leloz eta eskuen mugimendu askotarikoaz baliatuz; hortaz, hizkera erro mugatuz baliatuz, baina hizkera oso adierazkorra, «expresiboa».

Esan dudanez, duela 18.000 urte hizkera barri bat eraiki zuten, euskera «modernoak», silaba bikoa, lehengo silaba-bakarrean oinarritua (SU/SUTE; ZI/ZITU; IZ/IZAN...).

Aurrerakuntza horrekin batera sortu zan iberiera. Hortaz, iberiera ez zan etorri kanpotik, baizik antzinako EHan sortu zan: Akitania zabalean, eta Koba gehien zegoen lekuetan, zeren oraingo euskal herriak ez baitziren populatuak, baizik gehienbat oihanak.

Beraz, euskeraren seaskak Périgord eta Kantabrian daude; horietara joan behar genuke, arabeak Mecara bezala.

5. Azkenez, ESKU gaineko testu honetan iberierazko erroak ageri dira: TIR (bikaina); TER (lurralde), TAR (parajea), TA (bailara)... Zergatik esplizitatu behar zituzten gehiago iberiarazko erro horiek? Jendeak, erromatarren garai horretan, nahiko ahaztuta zuelako, jada, iberiera.

Kontutan hartu behar da, iberiera eta euskera hizkuntza berbera izan zela 10.000 urtez baino gehiagoz, (hizkuntza bera zen, ahizpa bikia), harik eta laborantza gertatu zan arte; orduan, artean herri nomada ziren haiek egondu egin ziren: leinu batzuk bertan geldituz, gure arbasoak; eta gainontzeko leinuek Levante aldera jo zuten, eta ondoren Andaluziara eta penintsula iberiko osora.

Azkenurreko auzia: zer gertatu zen azkenean gure ahizpa bikiarekin? Iberiera idatzia latin idatziak irentsi zuen, orain dela 2000 urte; iberia mintzatuari dagokionez, jendeak luzaro jarraitu zuen hitz egiten (Iruña-Veleian ere ageri denez), eta orain hizkuntza «romaniko gaizki deitutako» gaztelera, catala, gaskoin eta abarrak dira dialekto iberiko. Ezen ez baitatoz latinetik, uste dan bezala, baizik iberieraen dialektoak dira. «No venims dins latina» idatzi du, azertu handiz eta argumentu definitiboz Carme G. Huertas mallorcarrak. Sasoia da ohiko «romanismoa» gainditzeko eta Akademietakoak eguneratzeko.


Eta bukatzeko, bedi nire partetik, azken galdera: zegatik ez dute irakasten gure eskoletan eta akademietan euskeraren historia eta pentsaera? Ez du balio euskera «gainditu beharreko asignatura» gisa planteatzea, gure Hezkuntza Itunean planteatuta dagoen moduan. Euskera, biluzik barik, bere historiarekin eta pentsaerarekin (bre soineko eder guztiekin saldu behar zaio belaunaldi barriari.

SORIONEKU .
DEN(H)EK (H)HEBE
(H)EKHÜR (H)ATERRE
(H)OTTÜRRTAN .
(H)ESE (H)AKARRÜ
(H)ERRAÜKÜN .

Zorioneko zu, Den-ek bere
argia aterpe honetan. Etxe
izan dezagun.

Irulegi 1993 brontzea (opistógrafo textos incisos mediante técnica de punteado, ambos lados presentan líneas de pautado constituidas por finos trazos incisos simples en Cara A, dobles en Cara B que delimitan renglones de escritura).

- **_RRAR, BIBORRARR:** (1, dos puntos en diagonal hacia arriba U, BE, KE, TE,S)
- **BE_ TITURRTZ:**
- **KI_ _BELTINES be.RRTZKA.** (1, dos puntos en diagonal hacia arriba U, BE, KE, TE)
- ...
- **_BE_ TITURRTZ:**
- **TA_ NESKETI_ _KANE_ KURRSORRTZ_**



El bronce de Irulegi 2022 finaliza con ERRAUK-ON (veredicto, verdict, veir dit, del latin vere 'con verdad' y dictus 'dicho'. Verdad dicha, la dicha). Horiek horrela, Irulegiko esakuna ZORIONE-KU hasiz eta ERRAUK-ON bukatuz arao edo birau egitura bati darraikio. Falta zaigun tartekoa, zorioneko ostekoa, agurra ondorengoa eta "veredicto"aren aurrekoa litzake. ERRAUKON (DICHA, BUENA DICHA proveniente del verbo decir, significa 'las cosas que se dijeron', pero también 'felicidad', 'buena suerte'. El dictado de Irulegi 2022 comienza con un "salutatio" ZORIONEKU y termina con un "verdictus" ERRAUKON (tengan dicha buena)

En dialecto Navarro

Erran=Esan

Errauk=Esauk (dícito, dicho)

ON (buon, antes de que aterrizara en el Ebro, los latíns brothers)

Arau (norma, sortilegio)

1. Salutatio ZORIONEKU DENE KEBE (Bienaventurado día a todos los presentes)
2. Mezu, mensaje 3.y último Veredictum ERRAUKON (buena dicha tengan)
2. Mezu: ekirr aterren (relámpagos afuera) OtSirr-danba (trueno) eze akarr i (no lo atraigas tú)

El amuleto metálico colgante at portam era el utensilio metálico, como las actuales hachas con el filo hacia arriba, que sacan afuera del caserío como ritual de protección ante truenos.

Zorioneku: Zortzi:

Aldaba
Eskerroneko
Eskuzabala



Paulo Arrieta
Irulegi 1993-2022
5. Euskeraren Xarma
Barrika (Bizkaia)



53,19% SN / 40,87% CU / 2,16% PB

Los textos epigráficos de contenido jurídico y legal, de hospitalidad y patronato, etc., se sustentaban en bronce dentro de la cultura romana.

Este hábito fue adoptado también por los celíberos como muestran las tesserae y los famosos bronce de Botorrita.

Sin embargo, ésta costumbre no parece que llegara a introducirse en la cultura ibérica, sólo en plomo, como la Mano de Alkubierre (Huesca) s. III a.C.

Los bronces de Irulegi sin embargo, buscan un **efecto apotrópeo** (invocador) y **bienhechor**

- La convicción de que **las mujeres hacen el tiempo** se halla ampliamente extendida en el ámbito europeo, (y su sincronización al mes equinoccial del cambio de ciclo) puede ser por la especial consideración del incipiente tiempo primaveral en calidad de presagio para el año, pero también al especial significado del tiempo primaveral para la fecundidad del año.
- **Persigue influir sobre la naturaleza** por medio de estímulos y ejercer una influencia porque el augurio no supone únicamente una mera actividad de observación para registrar.
- El augurio funciona ante todo como una **ofrenda propiciatoria** que, asumida por la divinidad a través de sus mensajeros o agentes deberá revelarnos en qué medida le ha sido grata.

Irulegi 1993 brontzea (opistógrafo de textos incisos mediante técnica de punteado, ambos lados presentan líneas de pauta constituidas por finos trazos incisos dobles en Cara A, e incisos simples en Cara B, que delimitan cual renglones de escritura).

- **BELTITURRZ:**
- **TAN NESKETIL UKAN EBE KU ZORRZI**
- **EKiRR ARS₁ BIBORR KARR:** (i, U, BE, BI, KE, TE)
- **BELTITURRZ:**
- **KIEIKI BELTINE TU₁RRZ KARR:** (i, BE, Bi, KE, TE)

Irulegi 1993 ARAO/BIRAO RITUAL DEL EQUINOCIO VERNAL (BELTITURRZ) (1 MAYO BELTINE)

- BELTITURRZ:
- TAN NESKETIL UKAN EBE KU ZORRZI
- EKIRR ARS_i BIBORR KARR: (i U,
- BELTITURRZ:
- KIEIKI BELTINE TU_iRRZ KARR_i E



Irulegi 2022 brontzea (MANO con textos incisos mediante técnica de punteado, presentan líneas de pautado constituidas por finos trazos incisos simples delimitan renglones de escritura y incisos los propios signos).

- SORIONEKU:
- DENEKEBE EKIRR ATERREN
- OTSIRRTANBA EZ EA KARR i
- ERRAUKON:



Irulegi 2022


ARAO/BIRAO

Apotrópeo contra rayos y truenos

- SORIONEKU:
- DENE KEBE E [REDACTED] ATERREN
- [REDACTED] TANBA EZ EA KARR I
- ERRAUKON:



BELTITURRZ
BELTINE_
Irulegi K.a. I



Aebelteso [Aulsci
Qleassonesis ann(orum)...
h(ic) s(ita) e(st). S(ift) t(ibi)
t(erra)] l(evis).

VL [REDACTED] NIS
Ae [REDACTED] SO
Oiasso K.o. I



Beltane, also spelled Beltine, Irish Beltaine or Beltaine, also known as Cétamain (summer) festival held on the first day of May in Ireland and Scotland, celebrating the beginning of summer and open pasturing.

AHERBELSTE DEO

AHERBELSTE DEO / SENIUS E(T) / HANNA / PROCUL(I FILIA)



89 a.C. "BELeS" iÑ (hacer, inesivo) eÑe (mío)

Lutibelscottio, Lumbelsar Volonsa. (Burgos)



BEÑA... ALBENEs
...ENEs ORDUNB...
SANIBEL...R ESTOVELLS
TURTUN...S ELANDus BELLS
UNBARBELES ADIN...

EÑEGEnsis

EÑEGEs

ORRdeñas iTURiÑVS



ANDOE...-ATAM...
258-205 a.C.





BELTITURRZ: BELTINE TURRZKA:

► ETURISSA
(ITURRITZA, BELATE)



► Deum vocant **Urrçia** (Aymeric Picaud XII)

TURZAU (Ampurias) TURLBAI (Alcoy) TURRIÑ (Ascoli) TURTUNBELIS (Ascoli)

Nemetona OTEIZA

► la presencia de varios miliarios, se constata la antigua existencia de un németon

hagionimia: es posible que se conserve el nombre de la ciudad en el santo al que está consagrada la zona, San **Tirso** (¿de un «**Urrç**so-tyr-so»? Es relativamente común. De hecho, el paralelo aducible más próximo, en todos los sentidos, sería «Nuestra Señora de **Andión**», es decir, de **Andelo**, en las vecinas ruinas de aquella ciudad estipendiaria



TIRSOS (tyr-so) (turisso –Oteiza)



- Pertenece al grupo numismático del NW del valle medio del Ebro, comúnmente conocido como "monedas vasconas". Una de las características de este conjunto es su **gran cantidad de alógrafos únicos**. En este caso, destaca la peculiar forma de "s" , similar a la de sesars (s6).
- En anverso, NL sin sufijos.
- La secuencia -rs- es común en otras cecas "vasconas" o afines: bařskunes, arsaos, arsakos, sesars y en el "bilbiliařs" del mosaico de Andelo.


Bi borrh_ gu ZORRZi (8) SORIONEKU




SORibeis (F21.1) SORike (D.2.1) SORiaku (F.20.2) OSOTARBAN (E.13.1) SORTIKE BATIR (C.4.1) BELESUR (Faria 1999:154) EKARRSOR-E (Osseja 4) ETESUR (plomo Cosetano) iBEISUR (B.7.35.36) IBESOR-en (B.1.25) kaniSOR (B.7.35) karreSOR-ieike (b.7.35) kuleSUR-irr (D.7.1) tikirSUR (plomo cosetano) berriSOR (Osseja 3)

NESKETI_
Irulegi K.a. I

NESKATO
Saléchan K.o. I



Zori on egu:





“BORnesKON”: ELAESus, INDEBILis, SURus TALAus

➔ NEU ELOSI ρως| TA NEURE AMA **MIRTO OVSTA** TA IL TA
 NEU XII VR NEURE AM NEU XII VRTE TV, III REBA TV, NEU **CE** (...)
 TV LAIKE BA I NEU ELOSI Ϙφως NEBA I

NEU LAIKI ηΛΟς NA XI URTE TV VELEIAN GORI BISI TA ES TA VELEI
 NOVVA BANA OS**OU** POLI TA, NERE ATA ARAINA ARRAPA

NIIV LAIKE TA VIIL[IIIA]N GORI NIIV VIIIIAN GORI BISI NA,

VELEIAN OSO LAGVN , MARCVS N

NEU BORNESKON

OUN MIA VINCIT / AMOR




ARAU BIRAU

*eradun
(erazi/arazi)

▶ SORGINAK ARAU HARRIGARRIAK ZERAUKON, KONJURUAK EGITEKO (nor-nori-nork) ZONBAIT ESAKUNE: **EKIRR (lightning)** zoin **OÑIRRdanba (thunder)** babes sortzilejio jakina erraukon



Araua/Biraua eraduten



Bajo la **LINEA DE VIDA** se hace la proclama:

BIENAVENTURADO DIA TODOS AQUÍ (A COBUJO)(RELAMPAGOS SALIENDO)

(ZORION EGU: DENE KEBE EKIRR ATERREN)

Bajo la **LINEA DE CABEZA/RAZON** se expone lo que sucede:

TRUENOS NO ATRAER (OÑIRR-DANBA EZ EAKARRI)

Bajo la **LINEA DE CORAZON** se anima a la acción (a cuenta de quién, qué)

SE LO SONSACA SI" nor-nori-nork (ERRAUKON BA) "ESAN ARAZI DIO BA"

(zeraukon -arazi zion, deutson) "se le obtiene la dicha, si"

"ERRAUKON" NOR-NORI-NORK aditza

- "eradun" aditz erroa (ekialdeko euskara euskalkietan): erazi/arazi (aditz arazlea)
- Dazut (dizut) Zaukun (zigun) Eraukun (diogun)
- D"erraükün" (daigun, dakigun, dezagun, diezagun)
- nork: guk (Denekebe)
- nori: hari/berari
- zer: errana/esana (oñirrdanba ez eakari)

ERANTSUS (Irulegi gertuko hurbileko herria)

Pour le docteur Urutibehety du « dieu de la foudre rouge » (**Heraus : ce qui descend du ciel, la foudre ; corritse : rouge**). C'est l'interprétation généralement retenue, notamment en raison **de la nécessité pour les bergers de s'assurer de la bienveillance d'une divinité liée aux orages**, équivalent de Jupiter



herauts erreprodukziorako hazten den zerri arra

Verbos causativos o factitivos

- Un verbo causativo, también llamado factitivo, es aquel cuyo sujeto no realiza la acción sino que **obliga a que la realice otro**. En la lengua vasca existen dos tipos de verbos causativos: los antiguos y los de hoy en día.
- Antiguos:** en el euskara antiguo se hacía uso del **infixo -ra-** para crear verbos factitivos, ikasi > irakatsi, eman > eraman. Actualmente no tienen un valor tan definido, y aunque posean este infixo -ra- son iguales que cualquier otro verbo. Además, en lo que se refiere al significado, **ya no presentan el sentido factitivo que tenían antiguamente**.
- Actuales:** para lograr el ya mencionado valor factitivo tenemos que añadir la forma arazi al verbo. Dependiendo del dialecto, el verbo adopta una forma u otra, arazi, erazi, azi, erazo...Según Euskaltzaindia, la forma correcta es arazi por lo que **erazi** queda relegada (excepto en adierazi). Además, siempre tiene que ir completamente unida al verbo. Los verbos a los cuales se les añade la forma arazi cambian de régimen, es decir: Etxera igo naiz / Etxera igoarazi naute.

Erraukon (heraugun)

- NOR NORI NORK sisteman hirur aditz diferent ditugu euskaldunok:
- Guk zuei zer Subjuntiboa erazi
- Dizuegu (dizuetegu) diezazuegun
- Deutsuegu dagizuegun derautsegu
- Derauzuegu(dereiciegü) deizuegun

nik zuri zer (ukaiten edo eduten arazten) bazaitut, orduan dERAuZUt

Zuk niri zer (haserratu): deraustazu= aserratu eragin deustazu

GUK HIRI ESAN ARAZTEN BADIAGU: ESATEA ERAGIN **HERAUGUN (ERRAUKON)**

Erronkaria edo nafarrera ekialdeko moldean egin zuen jauzi historiara gure hizkuntzak. Eta aldaki hori euskarri funtsezkoa gertatu zaigu eskukoa interpretatzeko. Ez da ustekabea, zeren dokumentatuta baitago (1349, ordenantza bat hizkuntza batzuk debekatuz) Huesca inguruko basquenç erronkarieraren tankerakoa omen zela.

Bada, erronkarieraren bitartez, *Zorion ekun* argituta geratu da, baina testu gehiago dago eskuan, biziki interesgarria, deszifraezina ematen badu ere.

Aurrera egiteko, ikerketa ordena linealean edo segidan egin dezakegu, ohi denez. Baina ez dugu horrela jokatu, zeren mezuko azken elementua sarrerarekin erlazioan dagoela deritzogu-eta.

Laugarren lerroko testua: e r' a u k o n

Hor ageri da /ko/. Eta /r'/ berezi bat. Signarioaren arabera, hori /rr/ izan liteke. Baina gorago zehaztu dugun 2F faktorea ere kontuan izan behar dugu; alegia, silaba konposatu edo konplexu bat

izan daiteke, esaterako /rd/ edo /dr/. Aditz bat izan al daiteke? Zer dugu erronkarieraz edo nafarrera ekialdekoan horren antzekoa? OEH:

- **eraduki**. Tener, mantener. Cf. hitzeraduki 'obligé envers quelqu'un' (O Po 51), relacionado seguramente tbn. con *itzeradoki* de Leizarraga. Harriet da s.v. **eradukitzea** ejs. de **erauki**.
- *Enezala **eraduki** batere haiduru*. RolTrag 45 (ap. DRA).
- *Oi, krüdela, erierazi naizü, / Ütsüerazi naizü, / Ülhünpian **eradükiten** naizü!* ChantP 116

Ezinezkoa da /rr/ izatea, ez baita dokumentatzen *errauki aditzik. Baina euskara molde haren fonetismoen arabera, oso probablea da /edrauk/ izatea, soinuen metatesi bat gertatuta (fonemen transposizioa): /*erdauk - edrauk/. Silaben metatesiak usu gertatzen diren bezala (adib.: *iradoki* edo *idaroki*). Gainera, erronkarierak gogoko ditu /dra/ tankerako fonemak:

- ek dra - gu gra - zu zra
- *Almadieroak negu gorrian xoaitan **dra** egoatxetik*
- *Xoan fite neskatoa matto bero matto andi uskarari **emoitra***

Beraz, aginterazko adizki bat dugu, *edrauk*, hots, 'ukan' ('ezazu / ezak/n') eta *on*, hasieran ikusi duguna. Horrelako aginterak arruntak dira atsotitz zaharretan; Oihenarteren bilduman adibidez: *errak egia · emak orari hezurra · egik ongi · onetsak adiskidea...*

Imajinatu ditzakegu garai hartako baskoiak honela agurtzen: *Zorion ekun - Edrauk on*

Eta zergatik etorri garen azken elementu honetara? Bada, azter dezagun apur bat zer gertatzen den agurtzeko esakerekin. Erromatarrek etorreran Salve (/salve/) esaten zuten, eta joatean, Vale. Gure gaurko Kaixo eta Agur, labur esateko. Edo hartu-emanen harian: *Agur t'erdí - Izan ongi*.

Baina izan lezake beste adiera bat ere, eta da agurrari erantzuna emateko formula gisa: *Egun on - Baita zuri ere. Eskerrik asko - Ez horregatik*, eta abar. Imajinatu ditzakegu garai hartako baskoiak honela agurtzen: *Zorion ekun - Edrauk on*. Izan ere, ohartzekoa da *ekun* eta *eraduki* kide direla: *egin - eragin, ikusi - erakutsi...* bezala. Nolabait: *eduki - eraduki*. Beraz, esango bagenu bezala: *Eukik zorion - Eraukik on*.

Izan ere, agurraren parte independente bat izatea, posibilitate hori, ez dator oso bat aditz faktitibo bat erabiltzarekin. Alegia, zergatik erabili *eraduki* > *edrauk*? Aski izango zuten *ekun* aditza: *Ekun on*.

Nolanahi ere, agurra dela indartuta geratzen da beste ezaugarri estralinguistiko bati erreparatuta ere, eta da testuaren distribuzioa eskuan. Hirugarren lerroko testua konprimituta dago, estu-estu, ia sartu ezinik; baina azken elementua (*edraukon*) bera bakarrik ageri da, jarraian espazioa soberan duelarik. Bestela esanda, hirugarren eta azken lerroetako elementuen banaketa orekatuago bat egin zezaketen. Baina, ez. Azkenak solte joan behar zuen, bakarrik, agurra baita.

Horra hor, ba, mezuaren hasieraren eta amaieraren interpretazio linguistikoa, logikoa eta dokumentatua. Mamia geratzen da, muina.



Irulegiko Eskuaren interpretazioa. / Irudiak: Bizkaiko Euskal Filologo Taldea

"Uste dugu euskal komunitateak premia eta eskubidea duela: batetik, jakiteko Irulegiko Eskuan agertu den testua euskaraz dagoela zalantzarik gabe; eta, bestetik, ahal den neurrian, jakiteko zer dioen".

Gure ikerketaren lehen partean Eskuko testuaren sarrerari eta amaierari interpretazio bat eman diegu, 1. eta 4. lerroetakoa, koherentea eta dokumentatua. Geratzen zaizkigu tarteko mezuak, muina, lehenago esan dugunez. Aurrerapen gisa, iragarriko dugu bi lerro horietan adierazten dena harrigarria dela, eta hunkigarria, aldi berean. Irulegiko Esku hau altxor handi bat da, ez hizkuntzaren ikuspegitik soilik, ezpada alderdi humanistikotik ere.


"Bi lerro horietan adierazten dena harrigarria da, eta hunkigarria, aldi berean"

Haria berriz hartuz, zer espero dezakegu? Zer ote dago idatzita? Sarrera eta amaiera hain dotore horien barnean zer-nolako mezuarekin egin dezakegu topo? Gure irudimena lanean jarri eta senak, adimenak, jakituriak... horiek guztiek askotariko interpretazioetara eramán gaitzakete, hitzak sortzeko jolas batean bageunde bezala —jada ikusita dugu—. Leku-izenak agertuko ote dira? Norbaiten aipamena? Gatazkaren bat kontatuko ote du? Gertaeraren baten erreferentzia? Sinesmenak edo mitologia kontuak? Hitz solteak dira? Aditzik badago? Esaldiren bat? Eta abar. Ekin diezaigun, ba, misterioa argitzeari.

Mezuak esan dugu, baitirudi ezen marka batek bi zati (gutxienez) bereizten dituela. Goitik beherako marka bat da inskripzioan (/), lehenengo marraztua eta, ondoren, sei puntutxo grabatua, tatuaje baten antzera, testu guztia dagoen bezala. Bide batez esanda, artelan bat da, zail-zaila baita tamaina horretako azalera batean hainbeste puntutxo grabatzea.

Ordea, hasieran berean *istripu* birekin egin dugu topo. *Irregularitasun* edo *anomalia* ere deitu diezaiekegu. Baina horiek geroago argituko ditugu.

Hasteko, gure prozedura erakutsiko dugu. Horretarako, adibide gisa, ekar dezagun berriz Botorritako lehen brontzea, 1992an aurkitutakoa. Adituen arabera, alfabeto iberikoan idatzita dago, baina hizkuntza ezezagunekoa da, generikoki zeltibero izendatua.



Botorritako (Zaragoza) lehen brontzea. / Iturria: EUSKO IKASKUNTZA

Transliterazioa, 1. lerroa: *Tikeiga(n)kum barkunekeguem tikeitiskue sarnikekue sua kumbales nelitim*

Itzulpena-edo: *Hemos pactado con los de las alturas (los del norte, Vascos) y entregado a los guerreros de su pueblo, ni guerra*

Transliterazioan sartu gabe, edo hitz-elementuen zatiketean, nabarmena da interpretazioa edo itzulpena oso ausarta dela. Testuan *barkune* elementua ezaguna egiten zaigu: 'baskune', hots, baskoiak. Baina, guk ez dugu ausardia horrekin jokatu. Ahal den argien justifikatzen saiatuko gara, linguistikaren ikuspegitik, dokumentazioan oinarrituta; baina xehetasun teknikoetan nahaspilatu gabe, txosten honen helburua dibulgatiboa baita.

"Duela bi mila urteko hizkuntza bat aztertzean, dena xehe-xehe ezin baita frogatu"

Noski, puntu batzuetan *posibilitateak* eman beharko ditugu, duela bi mila urteko hizkuntza bat aztertzean, dena xehe-xehe ezin baita frogatu. Teorizazio bat egin dugu. Kasurako, latinezko testuak edukiko ez bagenu, zail-zaila izango litzateke gaurko erromantzetatik (gaztelera, frantsesa...), hots, latinaren eboluzioa diren hizkuntzetatik, latinaren berreraikuntza egitea, nolakoa zen zehatz jakitea. Ataka horretan gaude: gaurko talaiatik eraikitzen ari gara antzinateko euskara, haren sekretuak azaleratu nahian. Aitzin-euskara (protoeuskara), euskara arkaikoa... izendatu dezakeguna, horra gure zelakantoa.


Beraz, Irulegiko Eskuan horrela emanda daude muineko osagaiak:

- Bigarren lerroan: **te n e ke be e ki r' a te r' e[n]**
- Hirugarren lerroan: **o T i r' ta n · e s e a ka r' i**

Hor, ikus daitekeenez, zeinu bat dago, kako artean, zerbait adierazteko. Eta horrez gain, gure iritzian, beste gorabehera bat ere badago, garrantzi handikoa. *Istripu* deituko diegula esan dugu.

- Lehenengo *istripua*: {n} edo [n] **galdua**

Idazkunaren transliterazioan bi **n** jarri dira zeinu artean: bata, lehenengo lerroan, *sorioneku*-ren ondoan { }; bestea, bigarren lerroan, **e**-ren ondoan []. Izatez **n** bakarra da, eskuan grabatuta ageri dena, baina begiratu batean ezin da ziur jakin ala lehenengo lerroari dagokion –guk horrela hartu dugu: *ekun*–, ala bigarren lerroaren amaieran kokatu behar den; alegia, leku faltagatik gainean, gorago, *txertatu* ote zuten: **e[n]**. Edo agian bi lerroen amaieretan baliatu daiteke, bietan.



Iturria: ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

- Bigarren *istripua*: hirugarren lerroko | zeinua

Antzinateko inskripzio batzuetan, noizbehinka, zatiak-edo bereizteko marka moduko batzuk ageri dira. Gure eskuan ere badaudela interpretatu da: lehenengo lerroan (hiru puntu) eta amaieran (bi puntu).

Baina hirugarren bat ere ikusi da: **t a n** eta **e s e a** tartean. Eta ondorioztatzen da bi zati daudela, bereizita. Beste teoria batzuk ere eman dira horretaz.


Baina ekar dezagun Andeloseko (Lizarra ingurua) mosaikoko idazkuna, adibide moduan:



Andeloseko mosaikoa. / Irudia: BIZKAIKO EUSKAL FILOLOGO TALDEA

Horretan, argiago nabari da banaketa markak zeinuak baino puntu gutxiagokoak direla; ez daude hain trinkotuta eta, ondorioz, tartea adierazteko markatzat jotzea onargarria da. Botorritakoan ere nabari dira. Gure Eskuan, ordea, sei puntuk osatzen duten marka uste dugu ez dela bereizketa adierazteko. Batetik, beste biak baino indartsuagoa da (sei puntu, esan bezala), eta azpian marra bat dagoela somatzen da, gainerako zeinuetan gertatzen den bezala. Bai, marratxo bat nabari da, baita, amaierako markan ere (bi puntukoa, hirukoa?).

Baina, gure ikerketarako *istripu* hori, **t a n** eta **e s e**-ren arteko marka, garrantzi handikoa da. Zeren eta barra (ez guztiz) bertikal hori zeinu batena izan baitaiteke: |/ba/ fonema, edo silaba (ikus zeinutegia). Eta horrek asko aldatzen du testua.



Signario iberiarra. / Iturria: PINTEREST

Bada, gure iritzian, ez dago banaketa markarik, eta hirugarren lerroa honela da: **o T i r' ta n ba e s e a ka r' i**



Irulegiko Eskuaren testuko hirugarren lerroa.

Iturria: ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

Moldaketa: BIZKAIKO EUSKAL FILOLOGO TALDEA

Orain aurrera baino lehen, gogoratu ditzagun lehenago aipatutako faktoreak, testuaren ulermenean eta interpretazioan kontuan izan behar ditugunak:

- 1F Alfabeto mugatua. Ez daude *letra* guztiak, fonemak edo soinuak idazteko.
- 2F Silaba konplexuak (dra, tzu...), bi kontsonantedun fonemak, ezin idatzi. Beraz, antzekotasun fonetikoan oinarritutako idazkera. Ikusi dugunez, kasurako, **r'** ez da beti /rr/.
- 3F Praktika ez oso handia idatzizko hizkuntzarekin, silabak eta hitzak zatikatzeko.

"Ez dugu espero sistema sofistikatu bat; komunikazio sistema basiko bat espero dugu"

Eta murgilduko garen testua konplexua denez, elementu edo osagai askokoa, gehitu dezagun beste faktore bat (4F): aitzin-euskara dela. Euskara arkaikoa. Baina ez denbora zentzuan bakarrik ulertuta, baizik eta hizkuntzaren garapen fase goiztiarra dela. Hizkuntzak, dakigunez, komunikazio sistema aldakorak dira, eboluzio etengabearen daudenak, faktore askok eraginda. Adibidez, gure gaurko euskara eta duela lauhun urtekoa badakigu desberdinak direla. Hizkuntza guztietan gertatzen den fenomeno da. Bada, jar dezagun burua duela bi mila urte baino gehiagoko hizkuntz sisteman. Nolakoa izango zen? Ezinezkoa da froga askorekin erantzutea, baina aurrean dugun testuak arrasto batzuk utziko dizkigu. Horregatik, ez dugu espero sistema sofistikatu bat:

- Ez komunztadurarik (mugagabeak, ergatiboa...).
- Ez deklinabide atzizki konplexurik (mgg...); sinpleak, gehienez ere.

- Ez mugatzailerik (sinpleak, edo plural hurbila...).
- Ez lexiko konplexurik (hitz eratorriak ...*garri* (?), eta elkaturik ez).

Beraz, komunikazio sistema basiko bat espero dugu: izenak - izenondoak - aditzak - adizki sinpleak (errazak) - aditzondoak - oinarritzko juntagailuren bat - lexikoan hitz sinpleak, gehienbat.

Eta azken faktorea (5F), aurreko 3Frekin lotua: hitz baten amaiera eta hurrengoaren hasiera berdinak-edo badira (adibidez: bokal berbera), zeinu bakarrean biltzen direla idaztean, fusionatuta.

Goazen, ba, zatiketarekin, eta elementuen azalpena eta interpretazioarekin.

Bigarren lerroa: **te n e / ke be / e ki / r' a / te r' e[n]**

- **te n e** Zeinuaren irudiari begiratzuz gero, ikus dezakegu /te/ fonema izan arren, barneko marratxo diagonalak ez dela hurrengo /te/ bezalakoxea. Alfabetoan badakigu ez dagoela /de/ zeinurik (1F faktorea: antzekotasun fonetikoaren baliabidea). Hortaz, /tene/ edo /dene/ izan daiteke. Teoria batzuen arabera, lehenengoa /te/ gogorra izango litzateke, eta biguna bigarrena: /de/ posiblea. Ordea, guk bigarrean *ate* osagaia interpretatzen dugu, eta badakigu testu zaharretan (*athe*) edo toponimoetan beti izan dela /te/. Alegia, toponimo asko dago *-ate* osagaiarekin, eta bat ere ez da aldatu *-ade* izatera. Hortaz, lehenengoari /de/ izaera emango diogu, /te/ biguna: /dene/.
- Gaurko: 'DENAK / denek / denok'

Ez du mugatzailerik, ez komunztadurarik; duela bi mila urteko sisteman murgildu gara.

- **ke be** Erronkaria hurbilenean /kében/ ugari topa ditzakegu, ikusten denez deklinabide marka gehituta (*-n*, forma berriagoa); baina baita beste euskalki batzuetan ere, edota dokumentu zaharretan, forma desberdinetan:
 - *Aquí hace falta lluvia con mucha frecuencia. **Kében** bar diézu éuri ékun egunoro.*
 - *Gitxika-gitxika Maria Ruizen axoar hori beteko dogu hebeko (**ebeco**) gauzakaz* (Durango, 1537)
 - OHE. *heben* (BN, S; Lcc, VocS, Gèze, Dv, H), *amen* (V, G-azp), *Şkeben* (R), *Şkemen* (Sal, R), *Şgen* (Ae), **hebe**. **Hebe** se documenta en unos pocos textos suletinos (Tt Arima XI, Etch 524, Xarlem 781).

Gaurko: 'HEMEN'

- **e ki r'a** Bi osagai daude hor. Erronkaria modernoan /ek/ erakuslea (*haiek*) + norekin marka. Alegia: **ek dra** 'haiek dira' eta **eki dra** 'haiekin dira'. Horra hor lehenengo erakuslea (norekin, *haiekin*, *-n* marka falta duelarik), eta lehenengo adizki jokatu sinplea, *dira*.

Gaurko: 'HAIEKIN DIRA'

- **te r'e[n]** Batetik, interpretatzen dugu osagai honen hasiera fusionatuta dagoela aurreko hitzaren amaierarekin (–a a–). Gorago aipatu dugun 5F faktorea. Hortaz, /a/ gehitu eta **a t e** izango genuke. Bestetik, /r'/ dugu. Gogorra /rr/ dela kontsideratzen badugu *aterre forma izango genuke. Baina jada ikusita dugunez (*edrauk on*), sekuentzia fonetiko tratatu bat ere izan daiteke, /rp/edo /rb/: *aterpe* edo *aterbe*. Azkenik, kako artean txertatutako /n/ dugu, benetan horkoa ote den ez dakiguna. Horrek deklinabide atzizki bat dagoela onartzea dakar, Non kasuan, eta esan dugunez, hizkuntzaren fase goiztiar hartan ez dugu espero deklinabide marka askorik. Horregatik /n/ zeinua *Zorion ekun*-i esleitu diogu. Baina, baliteke –n atzizkia izatea, ez dugu baztertzen. Nolanahi ere den, ez da erabakiorra elementua eta esaldiaren

zentzua interpretatzeko, **a t e r p e** soila ere nahiko da.

Gaurko: 'ATERPE(n)' edo 'ATERBE(n)'

Egin dezagun lerroaren konpendio bat:

- **te ne / ke be / e ki / r' a / te r' e[n]**
- **denak hemen haiekin dira aterpe(n)**

Gure iritzian *denak + haiekin* elementuen zentzua zera da: 'elkarrekin'. Garai edo fase hartan ezin dugu espero *elkarrekin* elementua topatzea. Hori oso sofistikatua da. Ikustea besterik ez dago horren osaketari buruz dauden azalpen linguistikoak. Forma oso garatua da, konplexua. Modernoa.

Bestetik, *dira* adizkia 'daude' zentzuan ulertzeko ez dugu arazorik, gaur egun ere horrela baita. Eta, azkenik, *aterpe*. Ikus ditzagun adierak, Euskaltzaindiaren Hiztegia, edo OEHN.

- aterpe **1** iz. **Euritik begiratzeko babeslekua**. *Aterpe bila. Aterperantz joan zen.* **2** iz. **Babesa**. *Bideko etxe batean eskatu zuten gau hartako aterpea. Hirian gelditu behar izan dut, ahaide baten ostatuan aterpe harturik. Ogia bezain beharrezkoa da aterpea.*
- v. estalpe. Tr. *Aterbe* es empleado por los autores septentrionales y navarros. **1. Lugar cubierto, sotechado, cobertizo, soportal; albergue, casa, alojamiento, cobijo, refugio.**

Horrenbestez, esaldiaren bertsio modernoagoa, gugandik hurbilagokoa, emateko moduan gara:

- **denak hemen elkarrekin daude babesean**

Ez dakigu etxeari egiten dion erreferentzia (atariko hornigarria), ala herrixka-guneari. Berdin dio, zentzuak bietarako balio baitu.




Iturria: Irulegiko Eskuaren lamina (BERRIA)

Bada, agurraren ondoko lehenengo mezu hori harrigarria bada, zelan kalifikatu hurrengo! Hasieran iragarri dugu Esku hau altxor handi bat dela, baita ikuspuntu humanistiko batetik begiratura ere. Jarrai dezagun gure ikerketa eta interpretazioarekin.

Hirugarren lerroko harribitxia

Hirugarren lerrokoa izan da gure buruhausterik handiena. Hainbat bidetatik saiatu gara heltzen; ikerkuntza, teoria eta dokumentu asko arakatu ditugu. Laborategietan bezala, "saiatu-erratu" jardueran aritu gara. Izan ere, ez genion zentzurik antzematen lerroko mezuari, osotasunean. Zatiren bat edo beste ulergarri eta posible egiten zitzaigun, eta, noski, dena "argudiatu" daiteke. Baina lerroak jarraitzen zuen iluna izaten, inkoherentea.

Bilaketa etengabe horretan iritsi ginen /ba/ elementua deskubritzera ere, zerbait falta ote zen zalantza baikenuen. Horregatik, gure iritziz, sekuentzia ez da [**o T i r' ta n ·**] (testu bat + banaketa adierazteko zeinu bat), baizik eta [**o T i r' ta n ba**]. Hala ere, hori ez zen erremedioa izan, hasiera batean jarraitzen baikenuen argia ikusi gabe; ez zigun laguntzen. Gaizki enfokatzen ari ginen.



Irulegiko Eskuaren testuko hirugarren lerroa.
Iturria: ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA
Moldaketa: BIZKAIKO EUSKAL FILOLOGO TALDEA

Hirugarren lerroa: **o T / i r' / ta / n b a / e s e / a k a r' i**

Goazen, ba, gure azalpenekin eta interpretazioarekin. Oraingoan ez gara ordenean joango, didaktikoagoa egitearren.

- **e s e** Lehen begiratuan, elementurik argiena: *etxe*. Baina ez, ez da *etxe*. Gure atsotitz zaharretara jo (bizkaierazkoak) eta horra, adibide pare bat (RS):
 - *Idi zarrari, ze egiok alaunerik sorotsi* · (A buey viejo **no** le cates majada)
 - *Iraunik ze emak inori* · (**No** des baldón a nayde)

Horregatik, 'ez' modernoa eta 'ze' forma zahar horiek azaltzeko, Mitxelenak **eze* formulatu zuen: hortik bai *ze* zaharra eta gure *ez* sortuko ziren. Bada, gure iritzian, *eze* horri izartxo (teorikoa) kentzeko moduan gara, Eskuari esker. Jada ez da hipotesi bat, dokumentatuta dago.

- **a k a r' i** Berriz ere, itxura batean, aditza izan liteke: *ez* + aditza. Agian, **akarri* aditz zaharren bat? *Ekarri*? Ala izan ote liteke gure *ahakar* ('liskar'). Lerroko gainerako testuak lagunduko digu.

Goazen, ba, aurreko zatira, enigmatikoena. Hor dagoen **ta n** sekuentziak deklinabide atzizki bat dakarkigu burura, baina, esan dugunez, garai hartako hizkuntza sisteman ez dugu espero horrelakorik. Gainera, gure iritzian, hau da sekuentzia osoa: **o T i r' ta n b a**.

- **ta** Juntagailua dela interpretatzen dugu, gure '*eta / ta*'. Horrela balitz, juntagailu baten lehenengo dokumentazioa izango litzateke.
- **n b a** Fonetikan *nb /m/* soinu gisa hartzen da. Kasurako, asko ikertu den *uTanbaate* idazkuna (baskoien txanpon batekoa, E. Orduña): **Utzama* Ate.

Beraz, '*eta ama*' interpretatzen genuen *-ama* hitzaren lehen aipamen historikoa!-. Baina, gaizki, *-a + a-* sekuentzia osatzen baikenuen. Eta lerroko mezuak segitzen zuen zentzurik izan gabe. Etsi gabe, beste aukera baten bidetik jo genuen: *ma* hitza.

Lehenengo txostenean jarritako adibide bat, erronkarierazkoa, eta Hiztegiko azalpena:

- *Xoan fite neskatoa **matto** bero **matto** andi uskarari emoitra* ('musutxo')
- **ma** iz. Haur. Musua, maitasuna erakusteko norbait edo zerbait ezpainez ukitzea. Ik. pa; pot. *Maitetxo, pa niri eta ma horri*.

Ederregia, ezta, erreala izateko! Baina, eta aurretik dagoen mezuak argia ematen badigu?

- **o T** Fonetikako espezialistek T hori zein soinuri ote dagokion saio asko eginak dituzte. Txanpoi baskoietan agertzen da, ez iberierazko *alfabetoan*. Baina ez da jakin ziur soinua. Teorien artean, bada bat proposatzen duena soinu afrikari bat, ikusi dugun adibidean (*uTanbaate*), esaterako: /tz/ (**Utzama*; berriagoa *Utzama* izango litzateke). Beraz, afrikaria izanik, gure interpretazioan /ts/ edo /tx/ ere izan daiteke. Hortaz: /otz - ots - otx/, horietarik bat.

Hots dela ulertzen dugu. Forma ugari ditu: izen egituran ('zarata, soinu...'), hitz elkarketan (*ahots, oinots, harrabots...*), bai lokailu moduan (*hots, 'alegia'*) eta bai aditz gisa ere: *hots egin, hots eman*. Aldaera asko ditu, eta esanahaia ere apur bat anitza. OEHN adibide multzo luzea dago, baina errepara diezaiozun aukera honi, Euskaltzaindiaren Hiztegitik:

- **hots egin** 3 Oihu egin; esan.

Horrela, interpretatzen dugu *hots* horren zentzua '(gauzen) zarata' baino gehiago pertsonen hotsak, oihuak, esanak... izan daitekeela. Silaba bakarreko hitza da, ziurrenik oso zaharra; eta hitz askoren osagaia, esan dugunez. *Ahots* hitza ere hortik dator.

Eta zer geratzen zaigu? **i r'**

- **i r'** Zeinu hori, printzipioz /rr/ da. Ez beti, interpretatu dugunez. Baina oraingoan bai, /rr/ gogortzat hartuko dugu. Itxuraz ez da ezer, zerbait falta zaiola ematen du. Bokal bat amaieran?: **irri**. Hurrengo hitzarekin ahoskatzean, desagertu egin daitekeena: *irr(i) ta ma*. Hitz eratorrietan edo elkarketan bezala, adibidez: ekarri > ekarpen, iturri > iturburu. Edo *itzarri / itzartu* bikotean bezala: itzar(ri)tu, aldaketa fonetiko.
- **a ka r' i** Bukatzeko, eta gorago *akarri*-ren azalpena osatzearren aukera hauek ditugu:

1) **ahakarri* aditz zaharren baten hipotesia, *ahakartu*-ren baliokidea. Aditzetan badakigu –i amaieradunak zaharragoak direla –tu amaieradunak baino: estali / estaldu, sinetsi / sinestu, atzarri / atzartu... Baina ez da dokumentatzen **a(ha)karri* erako aditzik. Aditz eran soilik dugu *ahakartu*; adibidez: *Batak [erraiten du] liskartzea, bertzeak ahakartzea*. Ax 17; A puñetazos. *Bi adixkidiak ahakartu, eta hasi zituzun muxikunka* H.

2) Beste aukera bat da, hipotesi moduan, planteatzea *ahakarri* zaharra aditz bihurtzean (*ahakartu*), prozesu horretan –i galtzea: *a(ha)karri* > **a(ha)karritu* > *a(ha)kartu*. Eta aditz gisa erabiltzearen poderioz, > *a(ha)kar* formara aldatzea; forma modernoagoa. Nolabait *bihurri* hitzean gertatu dena: *bihurri / bihur*, biak ditugu, zentzuz ere desberdinak. OEHN, Bihur: *Aize-biorra* (Vger- m), 'viento arremolinado'; *Aize-biur* (V-gip-ple), 'remolino, ciclón, torbellino de viento', *Haize bihurren artean*. AB AmaE 468. Aditz bikotea ere badugu, esanahiz bereziak: *bihurritu / bihurtu*. Eta jakingarri gisa, hona eskualdean jasotako igarkizun bat: *Bi ahizpa beti 'akarrian' (ahakarrean) eta sekula ez odolik egiten. Zer da? -- Gardara. Garral EEs 1915, 92 y 111.*

3) Hitz horretan deklinabide marka bat falta izatea, *a(ha)karrik, zegaiti, etxeti...* formetan bezala. Ederki letorkiguke; gainera, ezeztapen baten ondoren dator; baina ez dugu onesten aukera hori.

Gure hipotesian izena da, *a(ha)karri*, ez aditza. Mezuaren zentzuak ere horren alde egiten du.

- **ahakar** (AN, L, Sal, R /**a**)kar/; SP, Aq 733). Ref.: Bon-Ond 158; A (ahakar, akar). Riña, disputa, reprensión.

Hori horrela balitz, hau da sekuentzia:

- **hots irri eta ma ez ahakarri**
- **hots irri eta musu ez liskar**

Eta, azkenik, bertsio irekiagoa:

- **ahots, irri eta musu, liskarrik gabe**

"Testu oso koherente bat azaleratu dugu, eta mezua lar da ederra, poetikoa izateraino"

Bi lerroetako testuaren interpretazioa garatuta, egin diezaiozun mezuari azterketa labur bat. Sintesi bikaina egin zuten bi lerrotan. Lehenengoan, kontaktzen dute beraiek **nola** bizi diren: elkarrekin eta babestuta; hurrengoan, **nolakoa** den beraien bizimodua edo gizarte bizitza: ahotsak, irriak eta musuak, giro baketsuan. Etxekoa edo herrixka-gunekoa, biak izan daitezke.

Eta analisi hori aintzat hartuta, bi sentipenek hunkitzen gaituzte.

Bata da, susmatzen genuela eskua idatzi zutenak ez zirela irudikatu litekeen basati talde bat, gauza inkoherenteak edo zentzu handirik gabeko mezuak grabatzen zituzten pertsona batzuk; horregatik, testu arrazionalen bat espero genuen, menturaz zerbait interesgarria kontatuko zuena, edo deskribatu edo erreferentzia egin. Eta, bai, horrela izan da, testu oso koherente bat azalatu dugu.

"Pentsatzen bagenuen garai hartako baskoiek ez zekitela ez idazten ez irakurtzen, Eskuak erakusten digu engainatuak ginela"

Beste sentipena izan da, dena argitzean, mezua lar dela ederra, poetikoa izateraino. Hain hitz gutxitan zaila da gehiago adieraztea. Pentsatzen bagenuen garai hartako baskoiek ez zekitela ez idazten ez irakurtzen, logikoa zelako hori pentsatzea, Eskuak erakusten digu engainatuak ginela – Etxepare, profetikoa: *Bertze jendek uste zuten...*–. Alfabetatuak ziren hainbestean, idatzizko komunikazioan ere abiatuak ziren; baina, gehiago dena, abstrakziorako, sintesirako, ahalmen ezezaguna eta sentiberatasun miresgarria deskubritu ditugu.

Txosten honi *Post Scriptum* atalarekin emango diogu amaiera, gogoeta eta zertzelada batzuk gehitzeko, lana argiago uzteko. Baina egindakoaren korolario gisa, honela laburbildu dugu, sintesian, orain arte interpretatu duguna:



3.7. Fernando Azedo

Irulegiko eskua", Nafarroan (Euskal Herria-Baskonia), K.a. I. Mendeko ProtoEuskarazko Testua Itzultzeko Bi Proposamen.

Dos Propuestas de Traducción del Texto en Protoeuskera (Baskoniko) de La Mano de IRULEGI (Siglo I a.C), Navarra, Euskal Herria-Vasconia.

LEHENENGO AUKERA

SORIONEKU •
TENEKEBEEKIRRATERREN
OTIRTAN •
ESEAKARRI ERRAUKON •

SORIONEKU •
TE-NE-KEBE-EKI-RR-ATERREN
O-TIRTAN •
ESEA-KARRI ERRAUK-ON •

XORIONEKO •
ETE NAI KEBEN EKIN RRU ATERRIEN
OÎ TIRTAN •
EXEA EKARRI ERRAUK ON •

ZORIONEKO •
ETE NAHI KEBEN EGIN RRO ATERRIAN
OÊ ETERTAN •
EXERA EKARRI ERRAGUK ON •

ZORIONEKO •
OTE NAHI HEMEN EGIN LO ATERRIAN
OHE EDERTAN •
ETXERA EKARRI ERRAGUK ON •

BIGARREN AUKERA

SORIONEKU •
TENEKEBEEKIRRATERREN
OTIRTAN •
ESEAKARRI ERRAUKON •

SORIONEKU •
TE-N-E-KEBE-EKI-RR-ATERREN
O-TIR-TAN •
ESEA-KARRI ERRAUK-ON •

AFORTUNADO,
ACASO DESEAS AQUÍ DORMIR A
CUBIERTO
EN HERMOSO YACER,
A CASA TRAES DÍNOS (BIEN <> BUENO)

AFORTUNADO <> BIENVENIDO,
ACASO DESEAS DORMIR AQUÍ A
CUBIERTO EN HERMOSO LECHO*,
DÍNOS (BIEN <> LO BUENO)** QUE/É
TRAES A CASA.

*Lecho con el significado de lugar para yacer, no con el significado de cama-mueble.

** Una de las dos opciones: o dínos bien o lo bueno que traes.

AFORTUNADO,
GRAN DESPLAZADO AQUÍ NO HAGAS
ADELANTE<>AVANCE
QUE A CUBIERTO ES HERMOSO el
YACER,
DÍNOS (BIEN <> LO BUENO) QUE TRAES
A CASA.

AFORTUNADO <> BIENVENIDO,
MUY DESPLAZADO AQUÍ NO SIGAS
AVANZANDO

XORIONEKO •
ÎTE ÊN EZ KEBEN EKIN RRE ATERRIEN
OE TER TAN •
EXERA EKARRI ERRAGUK ON •

XORIONEKO •
ÊTA ÂN EZ KEBEN EGIN ARRE ATERRIAN
OE ETER TAN •
EXERA EKARRI ERRAGUK ON •

ZORIONEKO •
HEDA HAN(di) EZ HEMEN EGIN AURRE
ATERRIAN
OHE EDER DAN •
ETXERA EKARRI ERRAGUK ON •

QUE A CUBIERTO ES HERMOSO el
LECHO*,
DÍNOS (BIEN <> LO BUENO)** QUE/É
TRAES A CASA.

*Lecho con el significado de lugar para
yacer, no con el significado de cama-
mueble.

** Una de las dos opciones: o dínos
bien o lo bueno que traes.

⌘ Nota 1

Si escribes algo es para que lo lea alguien (los espíritus no necesitan leer). Señal inequívoca de que entre los vascones había quienes sabían leer y escribir.

Nota 2

• Cuando hace 2.100 años los romanos quemaron el poblado de Irulegi, a finales de la Edad del Hierro y comienzo de la Edad Antigua, los vascones estaban allí.

• Cuando hace ~ 3.400 años, en la Edad del Bronce Medio, unos vascones poblaron en el alto de Irulegi, en Euskal Herria <> Vasconia no había ni celtas ni romanos. Los celtas llegaron (pasando a la meseta ibérica) a comienzos de la Edad del Hierro, hace ~ 2.800 - 2.900 años. Los romanos llegaron a Iberia tras Anibal en el siglo II a.C y llegaron a Euskal Herria hacia el siglo I a.C.

La quema del poblado se produce por los romanos en las Guerras Sertorianas, disputadas entre los romanos Sertorio y Pompeyo entre los años 90 y 80 antes de Cristo, uno de cuyos bandos quemó el poblado.

GOGOETA

Euskarak,
euskaldunon hizkuntza,
zentzua ematen digu euskaldunoi betidanik
Herri gisa jarraitasunez.
Horrexegatik egiten diote eraso Euskarari
etsaiek eta arerio gezurtiek. Aurkikuntza zorioneko honek, Irulegiko Eskuak,
"Sorioneku"-koak,
egiazko gauza asko
baieztatzen ditu,
baita lotsagabeki
gorrotoz eta harrokeriaz
Euskararen aurka
ari direnen gezurak ezeztatzen ditu ere,
haiek dituzten ezjakintasuna
eta borondate txarra
agerian utziz.

3.8. Iñigo Larragoiti

sorioneku.n

tenekebe ekiratere

otirtan eseakari

eraukon

Algunos estaremos de acuerdo,tal vez otros no, en mi modesta opinion la mano de irulegi es un objeto de magia,psicomagia,talisman,llamazlo como querais.

Se clavaba a la altura de los ojos, centrado en la puerta de la entrada principal de la casa.

Algunos se acordaran de tradiciones de corte magico espiritual,posiblemente heredadas del pasado , una imagen de kismo y una frasecilla en latin, de corte cristiano apostolico romano ,clavado y centrado en la puerta.

Irulegiko eskua, tiene unas palabras que, gracias a nuestras arqueologas ,tenemos la oportunidad de descifrar la informacion interior de la mano y conseguirlo satisfactoriamente.

Te adelanto que en la traduccion, estara la interpretacion de esos sonidos en forma de palabra, si, son signos graficos,por lo tanto sonidos que leidos a viva voz son informacion.

Tengo que fiarme de los expertos y muestro mi respeto por sus trabajos hechos con buena voluntad y esfuerzo.

Me falta informacion acerca del porcentaje de la mezcla , cobre arsenico,o,cobre estaño. Me gustaria saber si pueden hacer una trazabilidad del metal,los expertos supongo que lo haran ,saber desde que parte del planeta a salido el material,viajo hasta esta parte del planeta y fue transformado,finalmente puesta en la puerta para hacer su funcion magico espiritual.

sorioneku.n

en mi modesta opinion tiene que sonar como sorionekun.

su significado interpretado es: yo interior repite el espiritu de la felicidad.

soriontasun bien lo sabe un euskaldun, lo que significa esa palabra.

La mano de irulegi nos dice lo siguiente, por pasos: el sonido UN es el sonido del yo interior espiritual,el sonido K que significa ciclo repeticion,y unido a UN,su sonido es KUN ,es un ciclo repeticion espiritual de el yo interior.

Sorionekun por lo tanto lo interpreto como : repite el espiritu de la felicidad en el yo interior.

La siguiente palabra es TENKEBE , en turko TENKE parece ser que significa estaño , en euskera labe o LABEA es horno ,LA=alli area y BE = centrado uno ,un centro juntado,centrado y unido, me inclino a pensar que TENKEBE es el resultado de esa mezcla, la union de los metales,transformado en bronce, y sospecho que ese material,o aleacion con estaño ,vino desde bastante lejos , tal vez desde anatolia? desde turkia hasta irulegi?.Mi intuicion me dice que pudo ser posible, nuestros/as antiguos tenian grandes capacidades.

Nuestros antiguos tambien hacian negocios,las rutas de comercio e intercambio podian ser de largas distancias entre pueblos ,rutas que podian cruzar el mar,y que seguian por tierra, miles de kilometros de rutas de intercambio de recursos, metal de bronce tambien.

Vuelvo a repetir que TENEKE es estaño en turko ,ahora falta analizar y hacer la trazabilidad .Con mucho cuidado,ya que es un analisis invasivo en la pieza, es un asunto delicado, no se si seria posible hacerlo.

EKIRATERE ,lo interpreto como :sacado en la puerta haciendo un ciclo central.

OTIRTAN, esta palabra es especial , voy a intentar razonarlo, y que tu ,un euskaldun bilingue, y persona comun puede entenderlo y aceptar mi propuesta incluso mejorarlo sin estropear la esencia de la informacion.

OTIRE es ese algo fisico tangente ,que hace un buen recurso fuente de magia o hechizo, que es la parte intangible del asunto .OTIRE es un objeto fisico con funciones psicomaticas,como un talisman magico. OTIRTAN ,su significado por tanto es: en la magia , en el hechizo magico.

ESEAKA significa: dicho que se repite ,o ,se repite el dicho.

ERAUKON significa:repetidamente bien mostrado.

Voy con mi modesta interpretacion del total de la informacion .

"espíritu de la felicidad del yo interior

sacado en la puerta el bronce hace el ciclo central de la fuente

haciendo que el dicho se repita en el hechizo magico

a bien repetidamente dentro sea mostrado"

3.9 Ibon Telleria

Zorioneko
denek epe egin ater-lekuan (atarian)
otoi irten bat e(t)seak
arren-erra eduki dezan

(T) hizkia (to) balitzeke bezala hartuta.
Esaldi arteko banatzaileek, gehienez bi ala hiru puntu izan ohi dituzte. Idazkuneoak hainbat
gehiago dituenez (BA) hizkitzat hartu behar litzateke.

N- (eseakarre) balitz bezala traskribatu duten esaldiko azken ikurra, (I) izan beharrean (N) delakoan nago. Azterketa sakona egin beharko litzateke.



Zorioneko

denek epe egin ater-lekuan

otoi irten bat e(t)seak

arren-erra eduki dezan

Zorioneko

denek epe egin ater-lekuan(atarian)

otoi irten bat e(t)seak

arren-erra eduki dezan

(T) hizkia (to) balitzeke bezala hartuta.

Esaldi arteko banatzaileek, gehienez bi ala hiru puntu izan ohi dituzte. Idazkuneoak hainbat gehiago
dituenez (BA) hizkitzat hartu behar litzateke.

N- (eseakarre) balitz bezala traskribatu duten esaldiko azken ikurra, (I) izan beharrean (N) delakoan
nago. Azterketa sakona egin behar litzateke.

3.10. Antoni Jaquemot Ballarin

Sori "permiso"

oneku "de uno" ejemplo en Azkue: "auxe katu au ezta parte oneku" "este mismo gato no es parte de uno"

Dene "es respecto algo dicho": ejemplo 'zer dene' "lo que es"

kobe "reunión"

egir "realizar"

atere "fuera"

onirtan 'onirizko' "agrado, amor"

ese ageri 'hese' "entrañas visibles, notorias"

erau 'herau' "uno mismo"

'kon' participio forma de 'edun' "ha sido, ha tenido"

PERMISO DE UNO QUE LA REUNIÓN SE REALICE FUERA CON AGRADO ENTRAÑAS VISIBLES
SIENDO TU MISMO

En este caso el signo T es una nasal no 'tx'

3.11. Miguel Thomson

Desde el anuncio público, el 14 de noviembre pasado, del hallazgo en Irulegi (Navarra) de una inscripción en un objeto de bronce con forma de mano (Fig. 1), datado en el primer tercio del siglo I a.C., supuestamente en lengua “vascónica”, tal como la denominaron los filólogos Joaquín Gorrochategui y Javier Velaza [1], se han sucedido numerosas interpretaciones del significado del texto [2]. Y es que el mutismo total de dichos profesores sobre la interpretación del texto que sigue a la palabra inicial, *sorioneku* (traducida como el vasco *zorioneko* “afortunado”), ha dado pie a todo tipo de hipótesis, entre ellas la de que su lengua no tiene relación con el euskera [3]. Puesto que muchos se han atrevido a formular sus hipótesis de interpretación, ninguna de las cuales me convence, yo también me atreveré a presentar la mía, que no sé si será acertada o disparatada, pero que intentaré argumentar y documentar con el máximo detalle y que espero que al menos aporte ideas y contribuya al debate.



Fig. 1. Mano de Irulegi y su transcripción.

Una de las diferencias entre mi propuesta y las anteriores es que parto de la idea de que los grafitos hallados por Eliseo Gil y sus colaboradores en el yacimiento arqueológico de Iruña-Veleia (Álava), algunos de ellos escritos en lengua vasca, son de la misma época que indica la datación estratigráfica de las piezas, es decir, que son, más allá de una duda razonable, genuinamente de época romana, tal como he expuesto y argumentado en diversas ocasiones [4,5]. También parto de la idea de que la estela denominada “Villartoso 2”, hallada en las Tierras Altas de Soria, está inscrita parcialmente en una lengua muy próxima al euskera (aunque tal idea no se menciona expresamente en el artículo en el que fue descrita [6]), por sus paralelos evidentes con algunos grafitos de Iruña-Veleia, con algunas inscripciones aquitanas y con otras inscripciones halladas en la misma zona de Soria que contienen antropónimos indudablemente euskéricos [7].

La primera palabra del texto, que ocupa la primera línea junto con un signo de interpunción consistente en tres puntos dispuestos verticalmente, se ha leído como *sorioneku* [1]. Pero podría leerse también como *sorionegu*, ya que el signario ibérico nororiental no dual, utilizado en el texto, no distingue la sorda *k* de la sonora *g* [8]. Supongo que la elección de la lectura *sorioneku* deriva de su parecido con el vasco *zorioneko* “afortunado”. Algunos, ante la posible lectura *sorionegu* han sugerido su traducción como *zorion-egu(n)* “día de felicidad” o “feliz día”. Es cierto que *egun* puede perder la *-n* final en palabras compuestas, como *eguraldi*, *eguerdi*, *eguzten*, *egubakoitz*, *eguzari*,

etc., pero esto ocurre cuando va en posición inicial de la palabra compuesta, lo que no es el caso en *zorionegu*. Otra posible interpretación (que no me consta que se haya propuesto previamente) sería *zorio(n) negu* “invierno de felicidad”, que también podría traducirse como “feliz invierno”, y que en la Antigüedad podría haberse pronunciado *zorio(n) neku* (al igual que en las inscripciones aquitanas se escribe *cison* y *corri*, correspondientes a los actuales *gizon* y *gorri* [9]). Aunque “feliz invierno” en euskera moderno se diría *negu zoriontsu* o *zoriontsu negu*, es posible que en la Antigüedad la gramática fuera más simple y no hubiera una distinción tan clara entre sustantivos y adjetivos como en la actualidad, pudiendo significar *zorion* tanto “felicidad” como “feliz”. Construcciones similares las vemos en el griego bíblico, donde, por ejemplo, se dice (en traducción literal castellana) “Padre de las misericordias” (2 Cor 1,3), “mayordomo de iniquidad” (Lc 16,8) o “juez de iniquidad” (Lc 18,6), semitismos que significan “Padre misericordioso”, “mayordomo inicuo” y “juez inicuo”, pues en hebreo un sustantivo puede adquirir la función de adjetivo por simple aposición al sustantivo al que califica. Se podría objetar que si el significado fuera *zorion negu*, deberíamos esperar una doble *n*: *zorionnegu*. Pero la simplificación de consonantes dobles es frecuente en la evolución de diferentes lenguas, como en las palabras castellanas *inocente* (<*innocentem*) o *inocuo* (<*innocuum*), en la vasca *egunabar* (“crepúsculo de la mañana”, de *egunabar*, lit. “día gris”) y quizá en la vasca *ume* (“niño”), que en la inscripción de Lerga (Navarra) se escribe *umme* (documentada como Ombe- en Aquitania) [9].

Joaquín Gorrochategui expresó su extrañeza por el supuesto sufijo *-ku* de *sorioneku* [1], supongo que será porque no hay constancia alguna de tal sufijo en ningún dialecto vasco ni en la literatura en lengua vasca, donde solo se ha documentado *-ko*, y porque *zorioneko* solo está documentado desde el siglo XVIII, según he leído [10]. La lectura *zorion negu*, en cambio, no implicaría ninguna evolución lingüística inusual, lo que la hace más plausible.

¿Qué sentido tendría un “feliz invierno” en la mano de Irulegi? Su sentido podría entenderse mejor por la interpretación del texto que viene después, que explicaré a continuación. Pero en este punto comentaré que en muchas culturas, como entre los vikingos [11] y algunas etnias nativas americanas [12], los años se cuentan por inviernos. También se utiliza este sistema de contaje de años en el poema anglosajón *Beowulf* (siglo VIII d.C.), en el que, por ejemplo, la expresión “50 inviernos” significa “50 años” [13]. Incluso entre los romanos se utilizó este sistema, pues en latín existe la expresión *bimus* “dos años”, que proviene de *bis-hiems* “dos inviernos” [14]. También se utiliza en Asia oriental, pues una noticia reciente [15] da cuenta de que en Corea del Sur se acaba de abolir legalmente el sistema tradicional, de origen chino [16], de contar la edad de una persona mediante el cual se añade un año cada 1 de enero. Por lo tanto, en bastantes contextos culturales invierno equivale a año, por lo que “feliz invierno” podría significar “feliz año nuevo”. Otra posible interpretación deriva de la expresión *negu muga* (*muga* = lindero, término) documentada con el significado de “solsticio de invierno” [17], que permitiría conjeturar que *zorionegu* fuera un expresión abreviada de “*zorion negu muga*” (“feliz solsticio de invierno”), análoga a las expresiones coloquiales del tipo “felices fiestas” (donde omitimos a qué fiestas nos referimos, porque se sobrentiende) o “feliz año” (por “feliz año nuevo”).

Para la lectura del resto del texto es necesario saber qué sonido representa el signo T de la 3ª línea, el cual es ajeno a los signarios ibéricos. Lo más lógico es pensar que, si el texto está en una lengua relacionada con el euskera, T represente un fonema existente en esta lengua pero inexistente en las hablas ibéricas. La utilización del signo T está documentada en leyendas monetales vasconas de Navarra en las palabras *uTanbaate* y *oTtikes*, que Eduardo Orduña Aznar interpreta como los nombres de las actuales localidades navarras de Ulzama (documentada en época medieval como *Utzama* o *Utçama*, presunta adaptación vasca del topónimo celta *Uxama*, al que en las monedas vasconas se habría añadido *ate* con el significado de puerto de montaña) y Ostiz, proponiendo que en dichas leyendas T representa una africada dental *ts* o *tz* y que deriva del *tau gallicum*, de origen

griego, que en la epigrafía galo-griega y galo-latina representaba la africada *ts* [18]. Por lo tanto, siguiendo a Orduña, leeré la T de la mano de Irulegi como *tz* o *ts*.

